

EUSKARA INGURUNE GLOBALIZATUAN

Globalizazioak euskararen biziraupenerako ematen dituen aukerak

Egilea: Denis Elortza Gorrotxategi

*Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Hiznet
Sakontze egitasmoa*

Zubietan, 2007ko irailean

Euskara ingurune globalizatuan

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	2
0 SARRERA.....	3
1 METODOLOGIA.....	6
2 ZER DA GLOBALIZAZIOA	7
2.1 Definizioa	7
2.2 Eragin eremuak.....	11
2.2.1 Ekonomia eta enpresa.....	11
2.2.2 Politika	15
2.2.3 Ingurumena	16
2.2.4 Pertsonen migrazioak.....	16
2.2.5 Komunikazioa eta Internet.....	22
2.2.5.1 Internet, definizioa	22
2.2.5.2 Interneten bilakaera.....	23
2.2.5.3 Internet, iraultza	24
2.2.5.4 Interneten etorkizuna.....	26
2.2.6 Kulturak eta hizkuntzak.....	28
2.2.6.1 Kultura vs. hizkuntza	28
2.2.6.2 Ukipena eta hizkuntza gutxituak	29
2.2.6.3 Hizkuntza globala	32
2.2.6.4 Internet, "lehen" munduko hizkuntza guztientzako etxea.....	33
2.3 Globalizazioa: onerako ala kalterako?	36
3 GLOBALIZAZIOA ETA EUSKARA	41
3.1 Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak	42
3.1.1 Internet: datuak eta interpretazioa	42
3.1.2 Internet: argi-ilunak eta jarraibideak.....	45
3.1.3 Hizkuntza teknologiak eta bestelako Informazio eta Komunikazio Teknologiak.....	51
3.2 Enpresa mundua	54
3.2.1 Egoera ekonomikoa eta euskara	54
3.2.2 Enpresak eta euskara	56
3.2.2.1 Euskara planak: zenbait datu	56
3.2.2.2 Euskara plana duten multinazionaleri egindako galdetegia	58
4 PROPOSAMENAK.....	63
4.1 Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak	63
4.1.1 Administrazio publikoentzako proposamenak.....	63
4.1.2 Euskalgintzako gobernuz kanpoko erakundeentzako proposamenak.....	64
4.1.3 Informatikari eta internauta euskaltzaleentzako proposamenak.....	65
4.1.4 Internet erabiltzaile euskaldunontzako proposamenak	66
4.2 Enpresa mundua	66
4.2.1 Administrazio publikoentzako proposamenak.....	66
4.2.2 Enpresarietzako proposamenak	67
4.2.3 Sindikatu eta langileentzako proposamenak	68
4.2.4 Bestelako eragileentzako proposamenak.....	68
ERANSKINAK.....	69
1. eranskina: euskara planak dituzten enpresen zerrenda (HPSko diru-laguntzen onuradunak). .	69
2. eranskina: enpresa globalizatueterako inkesta	70
BIBLIOGRAFIA.....	72

Euskara ingurune globalizatuan

LABURPENA

Gaur egun bizi dugun globalizazioak euskarari nola eragiten dion eta zein aukera ematen dizkion aztertu dut lan honetan.

Globalizazio hitzak berak konnotazio negatiboa du orokorrean hizkuntz aniztasunaren zaleon artean, baita euskaltzaleon artean ere. Globalizazio hitzarekin batera etorri ohi zaizkigu beste hauek ere: amerikar inperialismoa, ingelesaren hegemonia, deslokalizazioa, kultura eta pentsamendu bakarra, munduko hizkuntza gutxiagotuen heriotza, merkatuen liberalizazioa, garapen lasterra, neoliberalismo basatia...

Globalizazio prozesuaren definizioak berak globalizazioak euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuentzat dakartzan arriskuen berri ematen digu baina lan honek ez du sakonduko globalizazioak dakarzkigun arriskueta, globalizazioak eskaintzen dizkigun aukeretan baizik.

Globalizazioaren ezaugarriak eta eraginak aztertu ondoren, euskarak biziberritzeko izan ditzakeen aukerak detektatzeko helburuarekin, modu berezian 2 arlo hauek aztertu ditut: Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak, batetik, eta mundu sozioekonomikoa, bestetik. Horrenbestez, lan honek 2007 urtearen erdialdean "globalizazioa eta euskara" gaiaren gainean egindako azterketa eta hausnarketa jasotzen ditu.

ESKERTZA

Lan hau egiten lagundu didaten guztiei neure esker ona adierazi nahi diet:

Andoni Barreña, Ester Sagasta, Txus Alfonso, Xabier Apaolaza, Jaime Bengoa, Leire Mugerza, Gurutze Mendizabal, Jon Egidon, Txema Abarrategi, Arantxa Jauregi, Natalia Jauregi, Ane Aldaraborda eta EMUN kooperatibari,

milesker.

Euskara ingurune globalizatuan

0 SARRERA

Azken bizpahiru urteetan euskararen erabileraren inguruan batzuek eta besteek azaleratu dituzten datu eta hausnarketak oinarri hartuta, euskararen berreskurapen prozesua inflexio puntuan dagoela iruditzen zait eta azterlan honekin neuk ere neure ekarpena eskaini nahi diot interesdunari; globalizazio prozesuak dakartzan arriskuen gaintik ematen dituen aukerak hauteman nahi ditut lan honetan, euskararen biziberritze prozesuaren aurrera begirako planteamenduak zehazteko bidean lagungarri izan daitezen.

HIZNETeko "Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan" gaiak maila orokorrean aztertzen du globalizazioaren fenomenoak hizkuntza gutxituetan dituen eta izan ditzakeen eraginak eta, gainera, "lehen" eta "hirugarren" munduko hizkuntza gutxituak zaku berean sartzen ditu. Nik "lehen" munduko hizkuntza gutxitu bati, alegia, euskarari, globalizazioak irekitzen dizkion ateak antzeman nahi ditut.

Lehenagotik ere HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko gutxienez bi ikaslek, Pablo Suberbiolak eta Ekaitz Sirbentek, jorratu zuten globalizazioa eta hizkuntza gutxituak bikotearen gaia, biek ere 2001-2002 ikasturteko sakontze egitasmoetan.

Zertarako aztertu, orduan, jada aztertuta dagoen gaia?

2001-2002an euskararen munduan globalizazioaren gaia ezagutzen hasi berriak ginen, teoria mailan gehiago praktikari begira baino, eta hori nabaria da HIZNETeko bi ikasle ohien azterlan marduletan. Baina globalizazioa ez da jada "badatorkigun" olatua, globalizazioa hemen dago, bizi dugu, etorri zen eta geratzeko etorri zen, globalizazioaren olatuan ari gara surfeatzen; are gehiago, gu ere globalizatzaileak gara, modu kontziente edo inkontzientean, globalizazio prozesu horren sustatzaile gara, egunero dihardugu horretan. Pablo Suberbiolak eta Ekaitz Sirbentek deskribatutako teoria horren praktika ezagutzen dugu, beraz, eta gertuagoko mailako azterketa egiteko gai gara jada.

Horrez gain, 2001-2002an ezagutzen ez zituzten hitzak, joerak eta berritasunak ditugu gaur egun pil-pilean: *deslokalizazioa, etorkin-uholdea, Lurreko Telebista Digitala, glocalizazioa, YouTube, Txinaren erupzioa, Google erraldoia, blogak eta blogariak, IKEAren Euskal Herriratzea, web 2.0...* Horrenbestez, ez dirudi, printzipioz, jada aztertuta dagoen gaia, alegia, globalizazioa eta euskara, euskara eta globalizazioa, berriz aztertzeke lanak alferrikako behar duenik.

Euskara ingurune globalizatuan

Globalizazioa.

McDonald's eta Coca Cola? Ez, hori baino askoz gehiago da globalizazioa.

Aurreko asteko astelehenean merkaturatu zuten AEBetan *iPod Touch* musika, bideo eta Internet irakurgailu eramangarri berria (albistegi digitaletan irakurri nuen). Asteartean egin nuen Internet bidezko erosketa eskabidea. Gaur, asteartea, jaso dut aparatua etxean. Aparatuaren diseinatzaileak New Yorken bizi dira. Aparatua merkaturatzen duen marka (*Apple*) AEBetakoa da eta Espainiako estaturako banatzaile ofiziala *Eroski hipermerkatuak*. Hardwarea Txinan muntatu dute baina osagaiak ekialde urruneko hainbat herrialdetan fabrikatu dituzte. Softwarea Britainia Handiko informatikari indiar batzuk garatu dute.

Hori da globalizazioa.

Eta tartean hizkuntzak. Albistegi digitala ingelesezkoa zen. Interneteko dendan espainieraz erosi nuen. Aparatua etxera garraiolari ekuatoriar batek ekarri dit, bere "buenos días" agurrarekin batera. *Eroski*k publizitate kartelak Euskal Herrian ere erdaraz jarri ditu. Aparatuaren berme-dokumentua 8 hizkuntzatan dago. Aparatuko softwareak 16 hizkuntzetako batean bistaratzeko aukera ematen du. Eta horien artean euskararen arrastorik ez. Ala bai?

Globalizazioa eta euskara.

Nola dago kokatuta euskara globalizazio aro honetan? Zein posizio du euskarak Interneten? Joan al da inoiz euskaltegi garraiolari ekuatoriar hori? Euskarak ba al du baliorik merkaturatzen? Euskal Herrian fisikoki kokatutako enpresa multinazionalak ari al dira euskara erabiltzen? Ba al du euskarak aukerarik? Izango al dugu euskaldunok aukerarik euskara erabiltzeko lanean, etxean, kalean, Interneten? Zer egin behar dugu euskaltzaleok aukera horiek ahalik eta handienak izan daitezen?

Galdera horiei erantzuten saiatuko naiz azterlan honetan. Abiada handiko mundu zorabiagarri honetan, informazioaren gizarte honetan, mundu geroz eta homogeenago honetan, finean, mundu geroz eta txikiago honetan euskarak ere lekua izan dezan lortzeko zenbait gako identifikatzen saiatuko naiz.

Nire saiakera hori, alegia, azterlan hau, ezin, ordea, mugarik gabekoa izan eta, horrenbestez, honela egituratu dut lana: lehenik globalizazioaren definizio, ezaugarri

Euskara ingurune globalizatuan

nagusiak eta ondorioak jaso ditut eta bigarrenik saiatu naiz euskarak globalizazioaren testuinguruan duen egoera islatzen, bi arlo hauek aztertuta; batetik, Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) eta, bestetik, mundu sozio-ekonomikoa, enpresen mundua. Azkenik, aurrera begira euskarak ingurune globalizatuak ematen dizkion aukerak probestu ditzan bi arlo horietarako baliagarri izan daitezkeen jarraibideak eman ditut.

Azterlana honela sailkatu dut:

- Metodologia: azterlana egiteko erabili ditudan baliabideen berri.
- Zer da globalizazioa: definizioa, arlokako eraginen deskribapenak eta hausnarketa.
- Globalizazioa eta euskara: batetik, Internet eta IKTetan euskarak duen presentziaren berri eta hausnarketa; bestetik, egoera ekonomikoak hizkuntza gutxituen garapenarekin duen zerikusiaren berri, Euskal Herriko enpresetako euskara planak eta multinazionalak lotzen dituzten hainbat datu eta euskara plana duten hainbat multinazionalen egindako inkestetatik ateratako ondorioak.
- Proposamenak: Internet eta IKTei eta enpresa munduari begirako hainbat proposamen, proposamenon hartzailerak diren eragileen arabera sailkatuta.
- Eranskinak: erabilitako hainbat euskarri.
- Bibliografia.

Globalizazioan murgildutako informazioaren gizarte honek duen abiada kontuan izanda, egindako azterketak zein emandako jarraibide horiek berehalako iraungitze data dute eta, beraz, lan hau irakurtzen duzunerako idatzitako kontuetako asko kontu zahar izango da. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu.

Euskara ingurune globalizatuan

1 METODOLOGIA

Aztergaia zabala da eta, jakina, hiru arlo horietako bakoitzeko adituen iturritik edan behar izan dut azterlan hau taxuzko edukiekin bete ahal izateko.

Proiektua garatzeko baliabide hauek erabili ditut:

- Bibliografia: paperezkoa, presentziala ("Nazioarteratzea. Eleaniztasuna kudeatzeko erronkak" jardunaldia) eta digitala (ikus Bibliografia atala).
- Hainbat enpresa multinazionalak bidalitako inkestak: [Fagor Etxetresna Elektrikoak](#), [Carrefour](#), [Alcampo](#), [SJM](#), [Copreci](#), [ABB Niessen](#), [Cegasa](#), [Fagor Ederlan](#), [Eika](#), [Fagor Industrial](#), [MCC Korporazioa](#), [SAM-Tompla](#) eta [Tajo](#).
- Interneten gaur egun euskarak duen egoera eta dituen erronkak ezagutu nahian hainbat webgune, blog eta forotan Interneten aditu direnei egindako jarraipena.
- Tutorearen eta lankideen laguntza.

2 ZER DA GLOBALIZAZIOA

2.1 Definizioa

Globalizazioa (edo **mundializazioa**, Ipar Euskal Herrian) gaur egun dagoen komunikatzeko eta garraiatzeko erraztasuna dela eta, merkatuen arteko batasuna eta kultura eta gizarteen arteko hurbilketa bultzatzen duen prozesua da. Prozesu horrek, gainera, gaur gaurkoz atzeraezina dirudi.

Dena den, definizio horri nahi adina ertz atera diezazkiokegu. Aldera ditzagun Wikipediako (Interneteko entziklopedia askea) hizkuntza-bertsio desberdinetako definizioak eta ikusiko dugu, bai, euren arteko alderik.

Frantsesezko Wikipedian, "globalisation" hitzari adiera murriztailea eman diote eta "gure" globalizazioari "mondialisation" deitu diote. Definizioan lan-eskuaren eta ezagutzaren transferentzia aipatzen ditu, baita Internet bidezko informazio zabalkundea ere.

*Le terme **mondialisation** désigne le développement de liens d'interdépendance entre hommes, activités humaines et systèmes politiques à l'échelle du monde. Ce phénomène touche la plupart des domaines avec des effets et une temporalité propres à chacun. Il évoque aussi parfois les transferts internationaux de main-d'œuvre ou de connaissances.*

Ce terme est souvent utilisé aujourd'hui pour désigner la mondialisation économique, et les changements induits par la diffusion mondiale des informations sous forme numérique sur Internet.

Alemanezko Wikipediako globalizazio prozesuaren definizioak eragin eremu nagusiak aipatzen ditu (ekonomia, politika, kultura, ingurumena eta komunikazioa).

*Unter **Globalisierung** versteht man den Prozess der zunehmenden internationalen Verflechtung in allen Bereichen (Wirtschaft, Politik, Kultur, Umwelt, Kommunikation etc.).*

Ingelesezko Wikipedian, berriz, globalizazioaren eragin esparruez gain, globalizazioaren azpiprozesuak ere zerrendatzen ditu (interdependentzia ekonomiko gero eta handiagoa, handitzen ari den elkarreragin kulturala, informazio teknologien garapen lasterra eta

Euskara ingurune globalizatuan

gobernu- eta geopolitika-erronka berriak). Globalizazioaren adibide sinplea (sinpleegia, agian) ere ematen du: telefonoa.

***Globalization** (or **Globalisation**) refers to increasing global connectivity, integration and interdependence in the economic, social, technological, cultural, political, and ecological spheres. Globalization is universally understood as a unitary process inclusive of many sub-processes (such as increased economic interdependence, increased cultural influence, rapid advances of information technology, and novel governance and geopolitical challenges) that are increasingly binding people and the biosphere more tightly into one global system. An example of globalization was the invention of the telephone.*

Italierazko Wikipedia globalizazio prozesuaren hasiera data ematera ausartzen da (XX. mendearen bukaera) eta prozesuaren azelerazioa 80. hamarkadan kokatzen du.

*Con il termine **globalizzazione** si indica il fenomeno di crescita progressiva delle relazioni e degli scambi di diverso tipo a livello mondiale in diversi ambiti osservato a partire dalla fine del XX secolo. Sebbene con questo termine ci si riferisca prevalentemente agli aspetti economici delle relazioni fra popoli e grandi aziende, il fenomeno va inquadrato anche nel contesto dei cambiamenti sociali, tecnologici e politici, e delle complesse interazioni su scala mondiale che, soprattutto a partire dagli anni ottanta, in questi ambiti hanno subito una sensibile accelerazione.*

Gure hasierako definizio ustez aseptiko hori modu askoz subjektiboagoan ere idatz liteke eta "komunikatzeko eta garraiatzeko erraztasuna" soilik herrialde ekonomikoki garatuei dagokiela esan genezake; "merkatuen arteko batasuna" edo merkatu-mugen eraispena boteretsuenen neurrikoa dela eta aukera-berdintasunean oinarrituta ez dagoela zehaztu genezake –adibidetzat, Txinako ehungintzari jarritako muga-zergak eta kotak jar ditzakegu–; "kultura eta gizartearen arteko hurbilketa" beharrea "mendebaldeko kultura eta gizarte-motaren hedapena" jarriko bagenu ere ez ginateke egia absolututik gehiegi urrunduko.

Asko izan dira eta dira globalizazio prozesua ikuspegi kritikoarekin definitu dutenak:

Douglass (2007), "Mr. Basque", antropologo amerikarrak, adibidez, globalizazioa "isilpeko amerikartzea" dela dio:

Euskara ingurune globalizatuan

Nokia Renon, adibidez, ez da McDonald's Frantzian bezalakoa. Gaitzik egiten ez duen multinazionala da. Askok jakin ere ez daki Finlandiatik datorrena. Aldiz, McDonald's, Wallmart, Starbucks... atzerrian zabaldu eta eztabaida sutsuak eragiten dituzte beti.

Amezagak (2005), kultur arloari so eginez, honela definitu du globalizazioa:

Gizartearen esparru batean –kulturarenean, kasu honetan– mundu mailako eragina duten gertaerak nagusitzen direneko prozesuari deitu ohi zaio globalizazioa. Hau da, planetako txoko batean gertatzen denak, aldi berean, urruneko txoko askotan du eragina. Prozesu hau posiblea da, bereziki, teknologiaren garapen eta hedaduragatik.

Tusón-ek (2002) dio globalizazioaren filosofiaren helburua ekonomia menderatzailea indartzea dela, alegia, nagusi den ekonomia horri "bidea erraztea" eta, ikuspegi ideologiko eta kulturaletik, lau hauek jotzen ditu bide hori errazten duten faktoretzat:

1. *El pensament únic*
2. *La fi del a història (jan o hi ha lloc pera revolucions o replantejaments socials; perquè hem arribat al millor dels mons possibles).*
3. *El llenguatge políticament correcte*
4. *L'anglès, llengua de referència, llengua universal, llengua del a modernitat i del progrés (bé, no ben bé l'anglès: el "basic english").*

Sampedro (2002), idazle, ekonomista eta RAEko kidearen aburuz globalizazioa munduko merkatuaren formarik modernoanari, aurreratuenari eta zabalenerari emandako izena da. Sistema horretan finantza- eta moneta-fluxuen zirkulazioa ahalik eta gehiena liberalizatu da; baita, nolabaiteko muga eta kontrolekin, salgaien mugimenduak ere eta, are murriztuago, langileen lekualdaketak. Bere iritziz, liberalizazio hori *botere ekonomiko gehien duten indartsuenentzat bakarrik da benetako askatasuna*. Informatikak eta desarautzeak ekarri duten gaur egungo globalizazio ekonomikoa guztiz antidemokratikotzat jotzen du.

... gobernuek uko egin diotenez finantza-transferentzien kontrolari, erabakitzen dutenak dira erakunde pribatuak, bankuak, edo pentsio- edo inbertsio-fondo handiak, bai eta izen-abizenak eta milioi asko dituzten espekulatzailak ere...

Euskara ingurune globalizatuan

... botere ekonomiko itzela eta irabazteko asmoa duten guneen konstelazioa da, gune horiek antzeko interesak dituztelako elkartzen dira, hartzen dituzten erabakiek munduko merkatuak menderatzen dituzte, finantzarioak batez ere, horretarako teknologia aurreratuena erabiltzen dute eta neurri arautzaileen eta kontrol publikoen ahultasuna edo gabezia aprobetxatzen dute. Emaitza: aberastasuna eta botere ekonomikoa gero eta kontzentratuagoak egotea munduan zehar.

Globalizazioa kontzeptu modernoa da baina baita oso aspaldikoa ere, Sampedro-k (2002) gogorarazten digunez:

Jadanik Erromako Inperioan, trafikatzailleek eta merkatariek bazuten beren sarea antolatuta gorte inperialaren inguruetatik probintzietaraino, garraioa egiteko bideekin eta indarrean zeuden botereekin adostuta. XIX. Mendean britainiar inperioan, Londresko munduko finantza-zentroa, inperioaren itsasoko bideak eta ustiapen kolonialak izan ziren garai hartako globalizazio pribatuen adierazle. Inperio bakoitzak ahal izan duen moduan "globalizatu" du.

Baina, gurera etorritz, gaur egungo globalizazioa deskribatzeko orduan argi dago kontzeptu hauek nahitaez sartu beharko genituzkeela:

- Prozesua da, gaur gaurkoz atzeraezina dirudien prozesua.
- Mundu mailako eskala du.
- Alderdi anitzetan (guztietan ez bada) du eragina: alderdi sozioekonomikoan, politikan, kulturean eta hizkuntzetan, ingurumenean, teknologian, pertsona eta (lehen)gaien garraioan, komunikazioan...
- Prozesuaren katalizatzaile nagusiak merkatuen liberalizazioa eta Internet eta gainontzeko informazio eta komunikaziorako teknologiak (IKT) dira.
- Ingelesa da komunikazio globalerako hizkuntza hegemonikoa.
- "Informazioaren eta ezagutzaren gizartearen" garapena abiada bizikoa izaten ari da, IKTek ahalbidetzen duten berehalako komunikazio globalari esker.
- Mundu osoa gero eta interdependenteagoa da. Jazoera lokalek eragin globala dute eta gertakizun globalek maila lokalera arteko eragina dute.

Euskara ingurune globalizatuan

2.2 Eragin eremuak

Globalizazioarekin, garapen tekniko eta zientifikoari esker, munduko leku guztiak lotuta daude, berehalako komunikazioa dago munduko bazter guztien artean. Eta ukipen horren eragina gizarte honen alderdi askotan islatzen da: ekonomian, politikan, kultura eta hizkuntzetan, ingurumenean, zientzia eta teknologian...

Globalizazioaren eragin horiek, ordea, indartsuenen diru-irabazien hazkundearekin dute zerikusia eta Sampedro-k (2002) justizia eta berdintasunarekin lotutako beste ondorio batzuk exijitzen ditu:

Ekonomia Berri honen berrikuntza nagusia Internet gero eta gehiago erabiltzea da. Berrikuntza teknologikoek bultzatu eta eraldatu egiten dituzte, egitura eta prozesu ekonomikoak ez ezik, baita guztion bizitzaren beste arlo guztiak ere.

Globalizazio globala (osasuna, justizia, hezkuntza eta politika hedatzen duena) ezinbestekoa da eta, aldiz, globalizazio ekonomiko hutsak desorekak sakondu baino ez ditu egiten.

Horrekin nahiko bat dator globalizazioaren kontrako taldeek (edo altermundialistek) sustatu duten eta hedatuz doan *glokalizazioaren* filosofia, alegia, globalizazioaren alde hoberenak onartu eta alde okerrenei lekuan lekuko alternatibak eransteko egitasmoa. Mundu zabalean aniztasuna eta globalizazioa lotzen dituen ideia da glokalizazioa. Lekuan lekukoa oinarritzat hartuz, mundu zabalean har daitezkeen ideien eta ikas daitezkeen kontzeptuen onurak *lokaleratzea* litzateke.

Datozen orrietan globalizazioak eragin dituen ondorio zenbait datu, adibide eta gogoeta jaso ditut, hainbat eremutan sailkatuta.

2.2.1 Ekonomia eta enpresa

Ekonomiari dagokionez, nabarmentzekoa da globalizazioarekin **kapital eta salgaien nazioarteko garraioa** zenbat hazi den. Jada, gaur egun, produktu bat erosi eta zail egiten zaigu jakitea marka hori nongoa den, enpresa komertzializatzailearen jabeak nongoak diren, produktua nondik ekarri duten, non egin den, produktuaren hornigaiak non fabrikatu dituzten, non muntatu dituzten...

Euskara ingurune globalizatuan

Izan ere, datuak argigarriak eta, era berean, harrigarriak dira ([UNCTAD: WIR2006](#)-ren datuak):

- 1970etik 2005era, atzerriko kapital inbertsioak 13tik 900 mila milioi US dolar izatera pasa dira.
- 1980tik 2004rako tartean mundu mailako salgaien garraioaren bolumena 2,4tik 11,7 bilioi US dolar izatera pasa da.

Kapital eta salgaien nazioarteko garraioaren hazkunde horrek, jakina, eragin arras desberdinak izan ditu herrialde industrializatueta edo garapen ekonomikoan dauden herrialdeetan; ikerketa, garapena eta berrikuntzan oinarritutako ehun industrialak duten ekonomietan edo fabrikazioa oinarri dutenetan; nekazaritza nagusi duten lurraldeetan eta ehungintzatik bizi izan direnetan; ingeniarietza enpresetan edo jakien dendetan...

Garapen bidean zeuden herrialde batzuei (Txekia, Polonia, Txina...) urte gutxian hazkunde ekonomiko handia ekarri die globalizazioak; ekonomikoki garatuta zeuden beste herrialde batzuei, berriz, industria-ehuna eraldatzeko beharra. Jakien denda ugari itxiarazi dute azalera handiko saltoki multinazionalak baina saltoki horien inguruan hainbat zerbitzu enpresa (eta lanpostu) berri sortu dituzte. Horrenbestez, nabaria da globalizazioak modu desberdinean eragin duela han eta hemen.

Enpresek, muga-sarien desagertzearen eta merkatuen liberalizazio maila handiari esker, kapitalari etekin handiagoak ateratzeko aukera ugari dituzte: inbertsioak nonahi egiteko aukera, lan-eskua atzerrian azpikontratatzeko aukera, fabrikazio plantak deslokalizatu eta fabrikazio guztia eskulan-kostu txikiko herrialdeetara eramateko aukera, egoitza sozialak lekuz aldatuz zergak paradisu fiskaletan ordaintzeko aukera... Beraz, orain gutxira arte estatu edo nazio mailan "jokatzen" zuten enpresek, orain, onerako zein txarrerako, zelai globalean ikusten dute beren burua. Eta, noski, egoera berrirako hasierako egokitze tarte ulergarria igarota, enpresek bi bide dituzte: globalizazioaren partidatik at geratu (eta, lehenago edo beranduago, hil) edo zelai globalera jauzi egin (eta, horrenbestez, globalizazioaren biktima izatetik sustatzaile izatera pasa).

Luzera enpresarentzat eta bere ingurunearentzat onuragarri izan daitekeen jauzi horrek, ordea, hasieran gatazka ekarri ohi du maiz. Alegia, produkzio enpresa askoren nazioartekotzearen lehen pausoa hornigaiak herrialde "merkeagoetatik" ekartzea izan ohi da eta horrek eragina du inguruko enpresa hornitzaileetan eta, horrenbestez, enpresaren

Euskara ingurune globalizatuan

beraren ingurunean ere bai. Pauso ausartagoa izan ohi da, batez ere kapitala bertan duten enpresen kasuan, produkzioa bera deslokalizatzea, eskulana merkeago duten herrialdeetara eramatea, baina hori ere gertatu ohi da eta, jakina, inguruko langabezia tasen hazkundera eragiten du. Eta horrekin batera, gatazka soziala. Luzera, berriz, badirudi globalizazioaren beste aldaerek bestelako lanpostuak sortarazten dituztela, batez ere maila sozioekonomikoan apustu estrategiko egokiak egiten dituzten herrialdeek.

Orain urte gutxi enpresa multinazionalak lehengaien sektore jakin batzuekin (gasa, petrolio, altzairua...) eta teknologia maila handia zuten produktuen (automobilgintza, etxetresna elektrikoak...) ekoizpenarekin lotzen genituen batik bat. Gaur egun, ordea, nonahi daude enpresa multinazionalak, sektore guztietan, herrialde guztietan. Izan ere, munduko merkataritza osoko 2/3etan parte hartzen dute enpresa multinazionalak (UNCTAD, World Investment Report 2002, S. 153).

Enpresa munduak zelai globalerako jauzia egin du eta, **garraioari** dagokionez, globalizazioak bilakaera esponentziala eragin du pertsonen eta salgaien garraioan. Soilik aire bidezko garraioaren datuei so eginda, ikusgarria da bilakaera:

- 1950etik hona airez garraiatzen diren pertsona eta salgaien kopurua 100 aldiz baino gehiagoz handitu da.
- 2004an egunero batez beste 5,1 milioi lagunek bidaiatu zuten hegazkinez (barne eta kanpo hegaldiak kontuan hartuta).

“Itsasoko autobideetako” trafikoa ere nabarmen handitu da azken urteetan: 2004an 6,76 bilioi tona salgai garraiatu zituzten lau mila itsas milia baino gehiagoko bidaietan ([BPD](#)ren datuak).

Eta enpresen handik honako, hemendik harako jardueretan komunikazioak eta, beraz, hizkuntzak, itzelezko garrantzia hartu du, Pueyo eta Turull-ek (2003) nabarmentzen dutenez:

En un món que es fa petit, la necessitat de comunicar-se ha esdevingut un imperatiu científic, comercial, econòmic i cultural de primer ordre.

Eta enpresa multinazionalen hizkuntza erabilerari eta hizkuntza gutxituenganako errespetuari dagokionez, bada, gaur egun ezin da mezu argigarririk eman. Kasuistika handia da eta sektoreka aztertu beharko genuke egoera, baita enpresa multinazionalaren

Euskara ingurune globalizatuan

izaera sozietarioaren arabera ere, kapitalaren jatorriaren arabera ere bai, produktu-motaren arabera ere bai, enpresa multinazional horien merkatuen arabera...

Dena den, bi kontu orokor baieztatzeko moduan egon gaitetzke:

Batetik, ingelesa da, gaur gaurkoz, nazioarteko merkataritza harremanetan hizkuntza nagusi, ez bakarria baina bai nagusia. Hala ere, ikusi beharko dugu etorkizun ez hain urrunean Txinaren potentzialtasun ekonomiko eta demografikoa gai ote den ingelesaren (edo "basic english"-aren) nagusitasuna ezbaian jartzeko.

Eta bestetik, neoliberalismo bortitzaren garai hauetan, badirudi estatuek jada ia ez dutela lege-heldulekurik enpresa multinazionaleri hala edo horrela jokarazteko. Eta, horrenbestez, ezinezkoa dirudi jada administrazio publikoek enpresa multinazionaleri hizkuntza bataren edo bestearen erabilera legez "inposatzea".

Han eta hemen jazo diren deslokalizazio kasuetan nabarmen ikusi da botere publikoek kasu horiek ekiditeko duten ezintasuna. Kasu horietan, administrazio publikoen helduleku bakarria enpresaren urteetako zerga-kenkariaren kobrantza-mehatxua izan ohi da baina neurri hori ez da eraginkorra izaten jada deslokalizatzeko erabakia hartu duen enpresaren kasuan. Gainera, ekonomian aditu Joseba Barandiaranek Euskadi Irratiko 2007ko kolaborazio baten aipatutakoa aintzat hartuta, esan dezakegu neurri horien aplikazioa arriskutsu izan daitekeela atzerriko inbertsioak erakartzeko bidean. Lege-helduleku gutxi, beraz, enpresa multinazionaleri, besteak beste, hizkuntza lokala(k) erabiltzera behartzeko.

Enpresa multinazionalak duten indar eta botere ikaragarriak sindikatuen rola ere nabarmen txikitu du eta sindikatuei, jada, aldarrikapen sozialak erdiesteko zailtasun handia nabari zaie. Horrekin lotuta, ez dirudi sindikatuek hizkuntza gutxituak erabiltzeko egin ditzaketan aldarrikapenek ere emaitza handirik eman dezaketarik.

Kataluniako talaiatik Solé-k eta bestek (2005) aurrez aipatutako kontuotako batzuen gainean jardun dute:

La mobilitat dels factors implica en el cas català una proliferació d'escenaris lingüístics locals altament diferenciats, i empreses i treballadors afectats de manera molt desigual pel creixement de fluxos laborals, de capitals i de mercaderies. Les transformacions lingüístiques que observem en àmbits geogràfics com el litoral turístic, les zones quasi rurals, la regió metropolitana de Barcelona i la pròpia ciutat de Barcelona mostren

Euskara ingurune globalizatuan

paisatges lingüístics molt diferents que són l'efecte de la contraposició de la globalització amb escenaris locals fortament diferenciats per les seves característiques demogràfiques i tecnologicoproductives.

Hem de destacar que l'augment del poder de negociació d'aquestes actors multinacionals és un element clau per determinar les pràctiques lingüístiques internes i externes d'aquestes corporacions, pel volum de recursos que gestionen i per la seva capacitat de deslocalització de les capacitats productives. En l'àmbit intern, per la disminució de la capacitat de resistència dels treballadors i l'adhesió d'aquests a l'empresa. En l'àmbit extern, per la capacitat d'aquestes empreses per determinar en una situació quasimonopòlica les característiques dels productes i les condicions de prestació dels serveis.

2.2.2 Politika

Globalizazioak 3 maila nagusi hauetan eragin du nazioarteko politikan:

- Nazioarte mailako itun eta hitzarmen politikoak ugaritu egin ditu.
- Nazioarte mailako erakunde (estatal izan edo ez) kopurua hazi egin da.
- Gertakizun globalen aurrean adi dagoen iritzi publikoaren eta berri-emaileen kopurua hazi egin da.

“Lehen” munduko estatu nahiz eskualdeen eta garapen bidean dauden arteko itun politikoak hedatu ahala, garapen bidean dauden herrialdeetara “lehen” munduko legedietan indarrean dauden eskubide zibil eta politiko batzuen hedapena ere etorri da.

Nazioarteko erakundeei dagokienez, batetik, erakunde global berri asko sortu dira eta, bestetik, lehendik sortuta zeudenek indar (behintzat, mediatiko) handiagoa hartu dute. Horren adierazgarri da, komunikabide lokalen egunerokotasunean erakunde global horiek hartu duten tokia. Lehen adituek bakarrik ezagutzen zituzten eta orain, berriz, kaleko ia edozein elkarrizketatan entzun daiteke, adibidez, FMiren berri edo Greenspan-en azken adierazpenen berri. Hauek dira globalizazio aro honetan pisu handia hartu duten erakundeetako batzuk: NBE, FAO, UNEP, Munduko Bankua (WB), Nazioarteko Moneta Fondoa (IMF), Munduko Merkataritza Erakundea (WTC), Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (OECD)...

Euskara ingurune globalizatuan

Horiez gain, gobernu kanpoko erakunde global berri ugari sortu dira, paradoxikoa bada ere, horietako asko globalizazioaren kontrako bilguneetatik eratorritakoak.

2.2.3 Ingurumena

Ingurumenarekin lotutako arazoak eta kontzientzia mundu osora hedatu dira. Bi dimentsio ditu ingurumenaren gaiak: baliabideen kontsumoa (input) eta sortutako kutsadura (output).

Garapen teknikoari eta hazkunde demografikoari "esker" natur baliabideen kontsumoa izugarri hazi da azken urteotan eta faktore horrek estatuen arteko interdependentzia are gehiago handitu du. Herrialde "garatuak" kontsumitzen dute gehien (munduko populazioaren %20k kontsumitzen du natur baliabideen %80) eta garapen bidean dauden herrialdeek natur baliabideen kontsumoa are gehiago handituko dute etorkizunean; horren harira, Txinaren kasua da esanguratsuen eta, berandu baino lehen, mundu mailako energia-krisia eragin dezakeena.

Kontsumo hazkundearekin batera dator kutsaduraren hazkundera. Eta kutsadura, beste ezer baino gehiago, globala da. Kutsadurak eta bere ondorioek ez dute estatu-mugarik ezagutzen. Eta, badirudi, XXI. mendeko lehen urte hauetan ingurumena zaintzeko beharrezko kontzientzia ere mugaz gaindiko egiten ari dela; horren azken adibidea, Al Gore AEBko lehendakariorde ohiak klima aldaketaren inguruko dokumentalak mundu osoan izan duen oihartzuna (herrialde boteretsuenak [G8] ere "behartu" ditu klima-aldaketaren gaia jorratzera).

2.2.4 Pertsonen migrazioak

Alor ekonomikoan globalizazioak eragindako lurrikarek fluxu migratorioetan ere izan dute bere isla eta izaten jarraituko dute. Migrazioak ez dira, berez, berritasun baina globalizazioarekin garrantzia handia hartzen ari dira, Suberbiolak (2002) nabarmentzen duenez:

... garrantzia berezia hartzen ari den fenomeno dela esango nuke. Informazioa bezala, produktuak eta zerbitzuak mugarik gabe batetik bestera abiadura bizian mugitzen diren honetan, esan daiteke lan eskua bera ere merkantzia bilakatu dela, eta hala, mendebaldeko ekonomien beharren arabera mugitzen dira pertsonak ere,

Euskara ingurune globalizatuan


hegotik iparrera nagusiki, beren jatorrizko eremuetan bizi ezinak bultzatuta eta mendebaldeko kapitalismoaren argi distiratsuek erakarrita.

Zentzu horretan, adibide argigarria eskaini digute Barreñak eta Juaristik (2005):


Maien artean dauden langabezi tasa handiek hiriguneetara bizitzera joateko (Mexiko Hiria munduko hiri populatuena da) zein beste herrialde batzuetara emigratzeko (AEBetara nagusiki) joera ekarri dute. Txirotasunak ohituraz bizi izan diren lurralde eta herriak uztera behartzen ditu, euren komunitateen eta, oro har, maien kultura eta hizkuntzen egoera ahulduz.

Globalizazioak ekarritako aldagai ekonomikoen aldaketarekin eta horien ondorioekin migrazioak ugaritzen ari dira eta horren adierazgarri, honatx gure inguruko zenbait datu:

- Euskal Herriko 2001eko hamabost urtetik gorako biztanleriaren portzentajeak norberaren eta gurasoen jatorriaren arabera ([Gaindegia](#)):




- EAEko migrazio kopuruen bilakaera (iturria: [EUSTAT](#)):




Euskara ingurune globalizatuan

- Frantziako immigrazioaren bilakaera (Frantziako [INSEE](#), Institut National de la Statistique et des Études Économiques):



- Espainiako immigrazioaren bilakaera (Espainiako [INE](#), Instituto Nacional de Estadística):



Munduan zehar biztanleria mugimendu handiak gertatzen ari dira, batez ere azpigaratutako herrialdeetan, eta hori herri eta kultura batzuen osaera eta izaera nabarmen aldatzen ari da. Herrialde pobreetako biztanleak mendebaldeko herrialde aberatsetara jotzen ari dira. Gazteak dira, batez ere, emigratzeko hautua egiten dutenak eta horrek herrialde pobreen etorkizuna kolokan jartzen du: bertako jaiotze tasak txikitu egiten dira eta komunitatearen (eta kulturaren eta hizkuntzaren...) biziraupena zaharren esku geratzen da.

Hori emigrazio masiboen ondorioetako bat izan daiteke. Baina emigrazioa duen munduak tamainako immigrazioa ere badu. Eta immigrazioek ere badute eraginik hizkuntza gutxituen desagertzearen prozesuan; euskaldunok badugu horren inguruko eskarmenturik.

Euskara ingurune globalizatuan

Dena den, eta globalizazioaren kontrako aktibistek salatu bezala, merkatua desarautu eta muga-zergak ezabatu dituen globalizazioak ez ditu pertsonen migrazioetarako mugak eta trabak eraitsi. Etengabe handitzen ari den migrazio prozesua, beraz, oraindik ere traba burokratiko handiak izaten ari da eta horrek, migrazioen bolumenaren hazkundera txikitzeaz gain, immigrazio ilegala nabarmen sustatu du.

Gure inguruan ere nabaritu dugu migrazioen hazkunde hori eta egunerokoak dira gurean etorkinekin lotutako irudiak: Erriberan lanean diharduten marokoar sasoikako langileak, kostaldeko ostalaritza establezimenduetako zerbitzarien artean entzuten den azentu argentinarra, gure zaharrak zaintzen dituzten ekuatortarrak, gure etxeak eraikitzen dituzten langile errumaniarrak...

Eta azken bizpahiru urteetan euskalgintzako eragileen artean nabaria izan da etorkinen etorreraren inguruko kezka. Gai garrantzitsua da etorkinena Euskal Herrian baina ikus ditzagun garrantzi hori erlatibizatzen lagunduko diguten hainbat datu (EAEkoak; iturria: [EUSTAT](#)):

- EAEko biztanle kopurua (2005-12-31n): 2.140.908
- EAEko etorkinen kopurua (2006-12-31n): 64.228 (biztanleriaren %3)
- Hizkuntza gaitasuna (2001):

Lurraldea	Euskal elebidun funtzionala	Elebidun funtzional orekatua	Erdal elebidun funtzionala	Elebidun hartzailea	Erdaldun elebakarra
Euskal Herria	%7	%7	%11	%11	%64
EAE	%8	%8	%13	%11	%59

Datuok aintzat hartzen baditugu ez dirudi, oraingoz, etorkinenak euskararen berreskurapenerako politika eta estrategietan gai zentrala izan behar duenik.

Hori bai, zenbait eremutan, euskararen arnagune direnetan eta hezkuntzan adibidez, oso sentikorra izan daiteke etorkinen etorrera eta bada espres jorratu beharreko gaia, Septién-ek (2006) azaleratu duen gisara:

Gure eskoletako ikasgelak eta patioak hainbat hizkuntza eta kulturatako ikasleen elkargune dira, gu konturatu gabe. Migrazioa fenomeno geldiezina da, globalizazioa gero eta zabalagoa den mundu honetan. Eskola inertziarako joera duen erakundera da, eta ezin dio bizkarra eman hain erronka handi horri.

Euskara ingurune globalizatuan

...kultura artekotasuna lotuta dago hizkuntza aniztasunarekin eta globalizazioarekin...

...zentro batzuetan 20 nazionalitate baino gehiagoko ikasleak batzen dira...

Baina gurea ez da, oraingoz behinik behin, migrazio-fluxu handien helmuga eta gure etorkin-kopuruak ez du Katalunian duen eraginaren parekorik oraingoz. Solé-k eta bestek (2005) eman digute eragin horren berri:

La consolidació de Catalunya com a destinació de fluxos migratoris per raons econòmiques procedents tant d'Europa com d'altres indrets ha modificat la composició del mercat de treball català.

Katalunian migrazioek duten eta aurrerantzean izan ditzaketen bolumenak jotzen ditu Siguán-ek (2002) katalanaren (hizkuntza) mehatxu nagusietakotzat:

Però tenir l'existència assegurada no vol dir que aquesta existència no estigui quallada de dificultats i de perills. Aquestes dificultats i perills tenen en primer lloc una raó demogràfica. Els índexs de natalitat als Països Catalans són molt baixos, inferiors al nivell de substitució generacional, i això vol dir que si actualment, en xifres aproximades, tan sols en cinquanta per cent de la població té el català com a primera llengua d'aquí a trenta anys aquesta proporció serà encara menor. El segon motiu està relacionat amb els desplaçaments de població que la globalització afavoreix: població estrangera, turisme, immigració ala recerca de la subsistència... I en tercer lloc, i també com a conseqüència de la globalització, d'aquí a trenta anys la presència i el pes de l'anglès seran més forts que avui.

Québec-en ere frantsesaren erabilera normalizatzeko bidean oso aintzat hartu dute immigrazioaren fenomeno eta gure aldean sakon landu dute. Espainiera hiztunak diren etorkinak frankofonoen artean etorkin ingeles hiztunak baino errazago integratzen direla konturatu dira. Horrela, Kanadako immigrazio Departamentuarekiko elkarlanean, Québec-eko Gobernuak etorkin frankofonoen edo erromantze hizkuntzak (tartean espainiera) dakizkiten etorkinak erakartzen dihardu, Bourhis-ek (2001) azaltzen digunez:

Following power sharing deals reached with the Canadian Immigration Department from 1978 to 1991, the Quebec Government gained a measure of control in the selection of immigrants based on the specific employment and linguistic needs of the Province. In the last two decades the Quebec Ministry of

Euskara ingurune globalizatuan

Civic Affairs and Immigration has had some success in attracting immigrants with a knowledge of French, others from former French colonies and immigrants whose knowledge of a Romance language (e.g. Spanish) facilitated the learning of French. Indeed, studies have shown that immigrants with some knowledge of French are more likely to integrate within the Francophone host society while immigrants with a knowledge of English are more likely to integrate within the Anglophone host minority (Veltman, 1998). Clearly, the Quebec Government is committed to using the institutional control at its disposal for selecting and facilitating the integrations of Allophones and immigrants to the Francophone host majority rather than to the Anglophone minority.

Euskal Herrian horrelako neurriak hartzeko aukera urrun ikusten dugu. Batetik, Euskal Herria osatzen duten administrazioek autonomia politiko handiagoa lortu beharko lukete immigrazioaren eskuduntzak jaso eta immigrazioa hizkuntza-aldagaien arabera arautu ahal izateko eta, bestetik, etorkinen hizkuntzaren arabera azterketa sakona egin beharko litzateke, adibidez, eremu euskaldunean hizkuntza aldetik afrikar bat hegoamerikar bat baino integratzen delako ondorioa iristeko. Aztertu egin beharko litzateke zer den komenigarriagoa, espainieraz dakiten etorkinak eta, beraz, hizkuntza bakarra (euskara) ikasi beharko luketenak ekartzea edo espainiera ez dakitenak erakartzea eta zuzenean euskara ikastera bideratzea.

Dena den, egon daitezke aztertu beharreko beste bide batzuk eta euskal diasporarena izan daiteke bat. Gainera, izan dugu azken urteetan horren adibiderik: Argentinako krisi ekonomikoaren kariatara, Argentinako euskal diasporako etorkin dezente jaso ditu Euskal Herriak eta ez litzateke arraroa izango, hizkuntzaren ezagutzaz haratago, diasporako etorkin horiek beste etorkinek baino euskararekiko jarrera abegikorragoa edukiko balute. Baina hori ere ez da aztertu.

Orain arte etorkinak etorri egin zaizkigu eta etorriko zaizkigunak... Hori ezin da eragotzi, baina, etortzen utzi baino, Québec-en etorkinak "ekartzea" erabaki dute, hizkuntzaren babesa buruan dutela. Eta gurera, zer? Etorkinek etortzen jarraituko dute ala guk ekarri behar ditugu? Agian oraingoz horrek ez du horrenbesteko lehentasunik baina etorkizunean nork daki...

Euskara ingurune globalizatuan

Migrazioen bolumenaren eta noranzkoen bilakaera zein izango den aurreikustea ez da lan erraza. Garapen teknologiko zehatz batek maila globalean aldaketa sakona eragin dezake eta urteetako bilakaerari momentuan buelta eman diezaioke. Horren harira, gaur gaurko adibide esanguratsuetako bat "bioerregaiak" ekar dezaketen eragina izan daiteke. Aspalditik ari dira mundu osoko hiriguneak handitzen, alegia, landa-eremuetatik hirietarako migrazioa nagusi izan da han eta hemengo mugaz barneko migrazioetan, landa eremu ugari hustera artekoa. Zerealak oinarri dituzten bioerregaien asmakuntzarekin, berriz, eta gure gizartearen erregai kontsumoa zenbaterainokoa den kontuan hartuta, landa lurren balioa egun batetik bestera izugarri handitu da eta horrek, besteak beste, hirietatik landa eremuetarako bueltako migrazioa eragin dezake.

Are enigmatikoagoa da "Txina efektuak" mugaz gaindiko migrazioetan izan dezakeen eragina. Orain arte batik bat txinatarrak izan dira mendebaldeko herrialdeetara etorri izan direnak; orain, berriz, mendebaldetik Txinara joaten hasi "gara", batez ere jatorria mendebaldean duten enpresa multinazionalak Txinan eraikitako produkzio plantetan lan egitera. Inor gutxi ausartzen da jada martxan dagoen Txinaren boom ekonomikoa zenbaterainokoa eta nolakoa izango den esatera eta, beraz, ezin jakin mundu mailako migrazioan zein eragin izan dezakeen.

2.2.5 Komunikazioa eta Internet

Aditu askoren aburuz, globalizazioaren bi faktore eragile nagusiak merkatuen liberalizazioa (edo desarautzea) eta Internet dira. Zarragak (2007) ere hala dakusa:

Globalizazioa diogunean, munduan harremanetan jartzeko modu berriak ari gara; mugez gaindiko erlazioak, azkarragoak, anitzagoak. Internet dugu fenomeno honen bultzatzaile eta ikur nagusia.

Internet sareari esker munduko txoko guztiak konektatu egin daitezke eta sareko bi punturen arteko komunikazioa berehalakoa izan daiteke, inongo bitartekariren beharrik gabekoa eta idatziak, ahotsak, irudiak eta irudi-multzoak (bideoa) transmititu ditzakeena.

2.2.5.1 Internet, definizioa

Funtsean seinale digitalen transmisioak bideratzen duen sarea da Internet. Sare hori osatzen duten elementu nagusiak kablea (kobrezkoa edo zuntz optikoa) eta router-ak

Euskara ingurune globalizatuan

dira. Azken honek digitalizatutako informazioa bideratzen du bere helmugaraino (iturria: [Euskaljakintza](#) bloga).

Internet mundu osoan zabaldua dagoen sareen sare erraldoi bat da eta TCP/IP protokoloak erabiltzen dituzten milioika ordenagailu daude elkarrekin lotuta.

Internet fisikoaren definizio hortaz haratago, Internetek aukera ematen du, modu digitalean, lehenagotiko komunikabideak (telebista, telefonoa, ohiko argitalpen idatziak...) integratzeko eta egindako komunikazio guztiak gordetzeko; horrela, mundu osoan urteetan zehar gordetako komunikazio eta datuek gizateriak inoiz ezagutu ez duen datu-biltegia (ziberespazio gisa ezagutzen dena) osatzen dute. Crystal-ek (2004) egoki jaso du hori guztia:

The creator of the Web, computer scientist Tim Berners-Lee, has defined it as "the universe of network-accessible information, an embodiment of human knowledge"...

Some commentators have likened the Internet to an amalgam of television, telephone and conventional publishing, and the term "cyberspace" has been coined to capture the notion of a world of information present or possible in digital form (earlier called the "information superhighway").

2.2.5.2 Interneten bilakaera

Teknologia berritzaile askorekin gertatzen den bezala, Internet erabilera militarerako sortu zen. Sortu eta berehala konturatu ziren aplikazio gehiago zituela, hala nola, web nabigazioa edo posta elektronikoaren bidalketak. Hasiera horretan elite unibertsitarioen arteko informazio eta fitxategiak elkartrukatzeko erabili zuten.

Gero etorri zen enpresa pribatuen Interneterako jauzi masiboa, korporazio handiek ekonomikoki puztutako "puntucom" aroa. Webgunea estreinatzen zuten enpresek telebista kanalaren izaera eman zieten euren web atariei.

Peer to peer (P2P) edo *puntutik punturako* aroarekin, berriz, informazioa eta fitxategiak (adib.: musika) elkarbanatzeko garaia etorri zen eta horrek jabetza eta egile eskubideekin eta copyright-ekin lotutako gatazkak eragin zituen. P2P tresnen sozializazio mailan software librearen lehenengo pauso garrantzitsuak eman ziren.

Euskara ingurune globalizatuan


Azkeneko bizpahiru urteetan web 2.0 kontzeptu, filosofia eta baliabideek hartu duten indarra izan da Interneteko berritasun handiena. Batetik, Internet erabiltzaileen parte-hartzea izugarri handitu da, lehen informazio hutsa zenari izugarritzko interaktibitatea emanaz. Bestetik, jada ez da beharrezkoa informatikako ezagutza webguneak sortu eta editatzeko eta, horrela, Internet datuz betetzea guztiz sozializatu da.

2.2.5.3 Internet, iraultza

Internet eta Internetek eskaintzen dituen komunikaziorako moduak, berez, kontzeptualki, iraultzaile dira, Crystal-ek (2004) irudikatu bezala:

... a new medium of communication affecting the whole of society has not appeared in 10,000 years... E-mails, for example, have been called "written speech", "a cross between a conversation and a letter", and "a strange blend of writing and talking". When Homer Simpson asks his friends "What's an e-mail?", they scratch their heads. Lenny replies: "It's a computer thing, like, er, an electric letter", Carl adds: "Or a quiet phone all"...

Internetek azken bosturtekoan ikaragarritzko indarra hartu du eta informazio eta komunikazioan iraultza eragin du. Horren adierazgarri, orain gutxiko datua: [KPMG](#) erakundeak egindako ["The impact of Digitalization - A generation Apart"](#) azterlanean egindako inkestaren arabera, Espainiako estatuan Internet jada informazio iturri nagusia da. (iturria: [Enpresa Digitala](#))



Interneten iraultza, **iraultzaren iraultza**. Hori da web 2.0 izenarekin bataiatu dutena. Termino horrek jendearen parte-hartzean eta informazio elkartrukitzean oinarritzen diren Interneteko web zerbitzuak biltzen ditu. Zerbitzu horien artean sailkatu daitezke webgune

Euskara ingurune globalizatuan

sozialak, komunikaziorako tresnak eta folksonomiak. Eta horiek aplikazio eta marka jada ezagun zaizkigun hauekin lotzen dira: blogak, blog plataformak, Flickr, YouTube, Tagzania, del.icio.us, Google, Facebook, Twitter, jarioak, feed irakurgailuak, Bloglines, etiketak, Technorati, wikiak...

Iraultzaren iraultza hori komunikazio eta komunikabideen iraultza ere bada. Izan ere, informazio kontsumitzailea jada informatzaile ere bada eta edonork sor dezake bere informazio kanal izan daitekeen bloga. Ohiko mass mediak oraindik ere jendartearen iritzia bideratzeko gai dira baina ez dira kontsumitzaileari irits dakioken informazioaren zati gero eta handiagoa kontrolatzeko gai. Horrela, jada Internetez maiz jasotzen ditugu gertakarien bertsio "ez ofizialak", kontrapropaganda mezuak eta mass media tradizionalak ezkutatuak gertakarien albiste eta kronikak, idatziak zein irudi bidezkoak. Horren adibide garbia izan zen Madrileko 11M atentatuaren ondorengo orduetan hainbat baliabide digitalen bidez (sms, blogak, foroak...) zabalduak bertsio "ez ofizialen" eragina.

Interneten bigarren generazioak (web 2.0) komunikazioaren mundua guztiz aldatu du denbora-tarte txikian. Ikus dezagun zer zioen Botella-k 2002an, oraindik ere "YouTube fenomeno" hedatu gabeko garai haietan, ikus-entzunezko komunikazioaren esparrurako aipatzen zituen hizkuntza gutxituen aldeko politika protekzionisten inguruan:

Són possibles polítiques proteccionistes. A Catalunya, la recent Llei de Política Lingüística estableix uns mínims pel que fa a l'ús de la llengua catalana, a la presència de música i cançó en català, etc...

"Ohiko" telebista (analogiko zein digitala) zuen hizpide Botella-k 2002an baina nabari da ez zuela aurreikusi "YouTube fenomeno", Web 2.0ren ikur nagusietako bat. Bideo-kamara digitalen eskuragarritasunarekin eta bideoak ostatzeko Web 2.0 tresnekin, edonork sor dezake jada bere telebista kanala, kanal globala inondik ere, eta kanal global eta aske horiei ezin zaie inongo babes- edo beto-politikarik aplikatu. Osama Bin Ladenek ez du Al Jazeera gisakoen ohiko telebista kate "lagunik" behar, badu Internet bere mezuak (bideoak) mundu osoan hedatzeko. Eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezingo dio Osamari legez agindu euskarazko emisioen kotarik.

Blogintza da Web 2.0ren konstelazioan distira handia egiten duen beste izarretako bat. 2007ko uztailean mundu osoan 125 milioi webgune zeuden dagoeneko (iturriak: [Net Craft](#), [Enpresa Digitala](#)). Hazkundera %40koa izatera iritsi zen iragan 2006. urtean, azken urteotan izan den handiena, eta hazkunde hori, France Telecom-en eEspaña txostenean

Euskara ingurune globalizatuan

esaten denez, oso loturik dago Web 2.0 agertzearekin eta banda zabala hedatu izanarekin. Azterketak dioenez, *"blog-ak jendearen artean ohiko gauza bilakatu direnetik, horri esker, pertsona ugari beren webgunea izatera iritsi dira ezagutza eta diruaren beharrik gabe"*. [Infonomia](#)-ren arabera, munduan zentsatutako 57 milioi blog daude.

2.2.5.4 Interneten etorkizuna

Internetek zer nolako bilakaera eta abiada izan duen ikusita, Interneten etorkizunaren inguruko iragarpenek kale egiteko aukera ia guztiak dituzte baina, tira, adituek aurreikusten duten hainbat kontu ekarriko dut hona.

Internet, Google, lokalera dator. Internet aditu den Luistxo Fernández-ek hori azpimarratu zuen Azpeitian 2006 bukaeran egindako ["Internet eta euskara"](#) aurkezpenean, [Uztarría](#)-k antolatutakoa. Internet ez da izango soilik New York-eko albisteak jasotzeko, Berlinen hotela erreserbatzeko edo Osloko asteburuko kultur agenda kontsultatzeko. Aurki [Google](#) gure eskualdera, gure herrira, gure auzora etorriko da eta Google-k esango digu zein iturginengana joan, Google-k esango digu zein jatetxetara joan, zein filma ikusi...

Internet bidezko **sare sozialek** ere etorkizunean pisu espezifiko handia hartuko dutelako aurreikuspena dago eta horren adibide izan daiteke 2007ko udaren bueltan [Facebook](#) aplikazioak izan duen arrakasta.

Internet eta telebista, bat. Telebista kate tradizionalak Internet bidez ikus daitezke jada (adibidez, [Zattoo](#)-ren bidez) baina, horrez gain, kate tradizional batzuk (adib.: [BBC](#)) hasi dira jada Interneten (batik bat [YouTube](#)-n) beren kanalak irekitzen, telebista-formatu askoz interaktiboagorako bidean. Eta gaur gaurkoz, badirudi hori izango dela etorkizunak ekarriko diguna, alegia, telebista Interneteko beste baliabide baten bilakatzea.

Irudi barruko bilaketa. Etorkizunik handieneko teknologietako bat irudi barruko bilaketarena da. Mundu osoan enpresa asko ari dira irudien barruan bilaketak egiteko formulak aurkitu nahian, irudiotan pertsonak, objektuak, idatziak edo lekuak identifikatu ahal izateko. Kontaezinak dira horrek izan ditzakeen erabilerak, baina badirudi, oraingoz, soilik segurtasun arloan erabiltzen direla, pertsona arrotzak antzemateko helburuarekin. Poliziak ere baditu gaizkileen datu baseak, software bidez filtratzen dituenak ezaugarri fisiko jakin batzuk dituzten pertsonak identifikatzeko. Gainera, argazkigintza digitalaren

Euskara ingurune globalizatuan

erabilera zabaldu egin denez, teknologia hauek eguneroko bizitzan erabiltzeko aukerak ere asko zabaldu dira, adibidez disko gogor batean dauden irudiak automatikoki sailkatzeko.

Irudi barruko bilaketaren harira, eta hizkuntz aniztasunarekin lotuta, hizkuntza teknologietan aditu den David Farwell-ek, Eleka Ingeniaritza Linguistikoak eta Miramon Enpresa Digitalak itzulpen automatikoaren inguruan 2007an antolatutako jardunaldietan, etorkizunean ikusiko dugunaren adibide argigarria eman zuen: *“etorkizunean, Japoniako tren estazio batean dagoen atzerritar batek japonieraz idatzitako errotulu bati telefonoz argazkia aterako dio eta telefonoak “hirugarren nasa” emaitza emango dio, euskaraz (moldatutako transkripzioa).*

Internet eta hizkuntzak. Internetek hasieran ingelesez hitz egiten zuen. Beste hizkuntzen presentzia eta proportzioa, baita “mendebaldeko” hizkuntza gutxituenena ere, handituz doa etengabe eta etorkizunean badirudi joera horrek bere horretan jarraituko duela. Martí-k eta bestek (2005) etorkizunean Interneten inguruko politikak nolakoak izan beharko liratekeen proposatzen dute:

Teknologia berriak hizkuntz eta kultur aniztasunaren zerbitzura jartzea bermatzeko politikak ezarri beharra daukagu. ... Ziberespazioan hizkuntza txikiak eta ertainak egotea izango da tokiko, estatus azpiko, estatuetakoa, eskualdeetako eta munduko agintarien erantzukizun berrietako bat. Erantzukizun hori bera hartu behar dute irabazi asmorik gabeko elkarteek.

Interneteko edukien presentzia handitzeko beharra ikusten dute:

Datozen hamarkadetan, informazio publikotzat jotako informazio kopurua gehitu beharko da. Bestalde, kultura guztietako ezagutzen eta ondarearen digitalizazioa sustatu behar da.

Eta hizkuntz teknologien inguruan, etorkizunean itzulpen automatikorako teknologiek izan behar duten garapena jasotzen dute Martí-k eta bestek (2005):

Komunikazio zientzialariek, berriz, itzulpen automatikoetarako teknologia berriak garatuko dituzte –ziberespazioko sareetan sartzeko ahozkotetasuna oztopo izan ez dadin, batik bat–.

Euskara ingurune globalizatuan

2.2.6 Kulturak eta hizkuntzak

Gizakiaren historian milaka hizkuntza galdu dira... Gaur egungo globalizazio prozesuaren baitan, hizkuntza txiki askok ezin eutsiko diote osasunari, beren baliabideetara mugatzen badira. ... Linguizidioa desagerrarazi egin behar dugu munduko bazter orotatik, gu guztion suizidio modu bat baita.

Ikuspegi garratza eskaini digu Fishman-ek (2005) baina ez dirudi oso oker dabilenik globalizazio prozesuaren eraginen inguruan. Pertsonen desplazamendua eta kulturen arteko ukipena eta interakzioa errazten dituen globalizazioak hizkuntzak ere ukipenean jartzen ditu eta ukipen horretan hizkuntza ahulenek desagertzeko arriskua izango dute. Barreñak eta Juaristik (2005) ere berretsi egin dute globalizazioak gutxitutako hizkuntzetan duen eragin latza:

Ez dago zalantzarik globalizazioak gutxitutako hizkuntzengan ere eragiten duela. Gure ohitura, bizimodu eta pentsatzeko moduen berregituraketa bultzatzen duen modu berean, globalizazioak hizkuntzak ere errotik astintzen ditu.

... Azken urteotan, hizkuntz komunitateak astintzen dituzten aldaketen bizkorraz ohartarazi dute azterketa soziolinguistikoeak... Botere harremanek, gerrek, migrazioek eta aldaketa teknologikoeak galanki eragin diete hizkuntzei. ... eta, globalizazioaren alderdi batzuek eraginda, oro har hizkuntz ordezkapena gertatzeko arriskua egotea.

2.2.6.1 Kultura vs. hizkuntza

Kulturak eta hizkuntzak, hizkuntzak eta kulturak. Merkatuen liberalizazioa eta Internet ikurtzat dituen globalizazioak kultur uniformizazioa dakarrela inork gutxi jartzen du zalantzan. Kultura globala kultura lokalen hainbat alderdi uniformizatzen ari baldin bada, zein rol dute hizkuntza lokalek kultura lokal horien izaeraren babesean? Zenbateko eragina du hizkuntza batek bere kulturen? Hizkuntzak egiten al du kultura? Hizkuntza ere galtzen bada zer geratzen zaio kulturari?

Kultura eta hizkuntzen arteko lotura zein den azaltzen digu Fishman-ek (2005) eta, bide batez, aurreko galdera horietako batzuei erantzun egin die:

Kontuan izan behar dugu zer harreman duen hizkuntzak bere kulturarekin. Kulturak elkarren "desberdinak" dira. Kultura bateko kideak ohartzen dira "desberdintasun"

Euskara ingurune globalizatuan

horretaz, eta originaltasunaren eta benetakotasunaren erakusgarritzat dute. Hizkuntza guztiak daude mailaz maila lotuta, hiztunek ezagutzen dituzten objektuekin, balioekin, kezkekin, ahaidetasunekin, pertsonarteko rolekin (eskubide eta betebeharrekin) eta ingurune bereziekin (izadiko baliabideekin, florarekin eta faunarekin), eta horiek guztiek beren kultur desberdintasun tradizionala osatzen dute. Hizkuntza baten eta hari loturiko kulturaren, haren mundu bakar eta benetakoaren, artean dagoen ageriko lotura da kultura batek bere hizkuntza galtzean galtzen duen funtsezko ezaugarrietako bat. Hizkuntza galtzean, hizkuntza horren hiztun taldea bere burua zehazki nola definitu ez dakien giza talde bihurtzen da.

Hizkuntza da, neurri handi batean, kultura. Kulturaren zatirik handienak lotura estua du kultura horri tradizioz atxiki zaion hizkuntzarekin; hainbeste, non kultura hori ez bailitzateke izango, ezingo litzatekeen izan, "kultura bera". Gobernu erakundeak, otoitzak eta zeremoniak, esaera zaharrak, ipuin tradizionalak, hezkuntza, agurrak, bedeinkapenak, biraoak, txantxak, literatura... Horiek guztiek osatzen dute kultura bat, eta horiek guztiak ematen dira hizkuntzaren bidez (eta hizkuntza horren bidez soilik).

Fishman-en bide beretik dabil Odriozola (2007) eta hizkuntza globalak (ingelesak) kultura globala sortzen diharduela iradokitzen du:

Hizkuntza, bada, munduratzan, gizarteratzen eta kulturaren esanahi-sistemaren ekintzetan barneratzen gaituen baldintzatat eta egitatetzat hartu behar genuke. Nolabait esan, geure egitura psikikoaren eta mundu sozialaren arteko diskurtso-zubitzat. Hizkuntza ez genuke jo behar gauza pasibotzat, identitate soziala eta pertsonala sortzen eta eraikitzen duen faktoretzat baizik. Eta, horrenbestez, gizakiaren nortasuna eraiki duen etxea litzateke, era guztietako esanahiez eta sentieraz jositako etxea izango genuke hizkuntzaren izaera. Ez baitago hizkuntzaren ardatzean eraikitzen ez den kulturarik. Demagun globalizazioaren fenomenoak: globalizazioaren fenomenoan ez al du bada, neurri batean bederen, hizkuntza global batek kultura global bat sortzen?

2.2.6.2 Ukipena eta hizkuntza gutxituak

Adituek diote Internet etorri dela eta behin betikoz geratzeko etorri dela. Beste horrenbeste esan dezakegu, beraz, globalizazioaz; globalizazioa etorri da, etorri zaigu, eta

Euskara ingurune globalizatuan

geratzeko etorri da. Gainera, ez dirudi nazioek globalizazio prozesu horretatik isolatzeko aukera handirik dutenik eta, aukerarik izatekotan, ez dirudi oso zentzuduna denik. Eta globalizazioak kulturak uniformizatu eta **hizkuntza gutxituak** ahultzen edo desagerrarazten dituela onartzen badugu, ez al dago itxaropenik hizkuntza komunitate txikiak? Martí-k eta bestek (2005) itxaropen horri ateak ireki nahi dizkiote:

*Iraganean, hizkuntz aniztasuna babestuta egon da hizkuntz komunitateen isolamenduari esker, eta, horrenbestez, hizkuntz harreman urriek esker. Etorkizunari begira, badirudi isolamendua hautatzeak ez duela inolako zentzurik; hainbat hizkuntzako hiztunen arteko harremanak ugaritu egingo dira, bai norbanakoen artean, bai kolektiboen artean. Egoera berri horretan, litekeena da hizkuntzen arteko harremanetarako eredu berriak ezartzea, hizkuntza ahulenaren desagertzea eragotziko dutenak. Eredu ekologikoei adierazten dutenez, hizkuntzen baterako existentzia posible da: baterako existentzia horretan, harremanetan dauden hizkuntzek funtzio desberdinak izango dituzte, eta ez da nahitaez ordezkapen prozesua gertatuko. **Benetako erronka mundu globaleko hizkuntza guztien** –hizkuntza handien, ertainen eta txikien– **funtzio erlatiboen plangintza egitean datza.***

Baina utopikoa dirudi globalizazio prozesuaren bultzatzaile nagusiek (AEBk), CO2-ren emisioak gutxitzeko mundu mailako protokoloak sabotatzen dituzten horiek, eredu ekologikoei jarraiki beren ingeles hizkuntza hegemonikoari mugak jarri eta beste hizkuntzentzako funtzioak "erreserbatuko" dituztela pentsatzea. Dena den, Martí-k eta bestek (2005) kultur aniztasunaren aldeko pentsamendua hedatzen eta gailentzen ari dela diote eta hori da itxaropenerako beste helduleku bat:

Gaur egun, aitzitik, gizarte konplexuak kudeatzeko gai diren politikak dira osperik handienekoak. Aniztasuna aberastasuntzat jotzen da. Garbiketa etnikoa, erlijiozkoa eta linguistikoa, aldiz, ikuspegi politiko zaharren eta okerren kontuak dira.

Desagertzeko arriskua duten hizkuntza komunitateek beraiek globalizazioaren prozesuak eskain ditzakeen zirrikitu guztiak baliatzea eraginkorragoa dirudi munduko hizkuntzen arteko balizko funtzio-banaketa global baten zain geratzea baino. Horrenbestez, eta Martí-k eta bestek (2005) iradokitzen duten gisara, hizkuntza gutxituen komunitateek beren hizkuntzari mundu globalizatu honetan zein leku eman nahi dioten erabaki behar dute eta horren arabera diseinatutako plangintza egikaritzen saiatu behar dira.

Euskara ingurune globalizatuan

Hizkuntz komunitate txikiek eta ertainek beraien etorkizunaren plangintza egin behar dute, aldi berean, gehien hedatutako hizkuntzak erabiliz –komunikaziorako eta ekonomi, gizarte eta kultur garapenerako duten erabilgarritasunagatik–. Hizkuntz aniztasun horrek guztiz bateragarria izan behar du komunitatearen hizkuntzaren erabilerarekin; izan ere, askotan, hizkuntza horrek nortasuna eta kultur identitatea zehazten ditu, baita pertsonen bizitza bideratzen duten mito eta balioak ere.

Mundu globalizatu honetan bere lekua mantendu nahi duten hizkuntza gutxituen komunitateen artean abantaila izango dute hizkuntza berreskuratzeko politiken ondorioz jada galera prozesua gelditu duten mendebaldeko hizkuntza gutxituen komunitate "modernoek". Katalanari gagozkiolarik, adibidez, Siguan-ek (2002), globalizazioaren arriskuak arrisku, katalana etorkizun hurbilean ez dela desagertuko dio eta honela argumentatzen du:

No tan sols és una llengua escrita sinó que és una llengua codificada i modernitzada, amb un cultiu literari important i un ús culte igualment important, tant en l'àmbit universitari com en l'administració pública. I amb presència als mitjans informàtics i a la xarxa Internet. I tot això amb el suport d'uns governs amb un marge d'autonomia suficient per a dictar la seva pròpia política lingüística. De manera que resulta raonable dir que en un futur previsible el català té assegurada la seva existència.

Era berean, esan liteke ukipenean bizi izan diren hizkuntza gutxituak (adibidez, euskara bera) isolatuago bizi izan diren hizkuntza txikiak baino prestatuago daudela globalizazioak dakarren hizkuntzen arteko ukipenaren eta funtzioen ordezkapen prozesuaren aurrean. Tusón-ek (2002), katalana gogoan, antzerako zerbait azpimarratu du:

El procés de globalització mundial té un model petit ben familiar: "oblideu les vostres llengües locals i veniu a la llengua gran, la llengua de l'estat, la llengua dels 300 milions, la llengua del a gran comunitat hispana"... Per tant, d'alguna manera es podria dir que hauríem d'estar vacunats per avançat.

Crystal-ek (2004), hizkuntzen arteko ukipenaren intentsitatea mailakatu ondoren, hizkuntza globalaren (ingelesaren) **maileguak** gainontzeko hizkuntzetan izugarri hedatu direla dio baina Toubon legeen gisakoek ordezkapen hori saihestu ezin dutela irizten dio:

No language exists in isolation. All languages in contact influence each other. Languages whose spread is widest –the leading international languages, such as

Euskara ingurune globalizatuan

French, Spanish, Chinese and Swahili – exercise most influence on their contact languages. And a global language, by its nature, exercises most influence of all.

One of the most notable trends of the last fifty years has been the way English, as it became increasingly global, began to affect the character of other languages through the arrival within them of unprecedented numbers of English loan words.

...Organizations have been set up to fight them. In some famous cases, attempts have been made to ban them – the 1994 loi Toubon in France being perhaps the best-known instance. The energy and emotion generated has to be respected, but at the same time history tells us very firmly that it is misplaced. All languages have always been in contact with other languages. All languages have always borrowed words from other languages. And no language community has ever succeeded in stopping this process taking place.

2.2.6.3 Hizkuntza globala

Aurrez aipatu bezala, XX. mende bukaeran hasitako globalizazio prozesuak berarekin batera **hizkuntza globala** ere ekarri du. Mundu mailako eskala duten komunikazio sistemen garapenak, planetako gizarte guztien elkarrekintza ekonomiko eta finantzarioak, muga eta aduanen desagerpenak eta arau, moda, produktu eta abarren berehalako zabalkundeak mundu mailako espazio bateratu bat eratu dute, mundu "globalizatu" deritzoguna eta komunikazio orokorrerako hizkuntzatzat ingelesa hartu duena. Hala baieztatzen du Botella-k (2002):

L'anglès quedaria com a autèntica "lingua franca", com l'única llengua capaç d'utilitzar les possibilitats comunicatives dels recursos existents i, per via de conseqüència, d'assolir la condició d'autèntica llengua global, que desplaçaria les altres a la condició de llengües purament locals, d'abast limitat.

Crystal-ek (2004) onartzen du ingelesak gaur gaurkoz duen hizkuntza globalaren estatusa baina ez du baztertzan etorkizunean beste hizkuntza batek har dezakeenik postu hori. Hizkuntza globala bata edo bestea izan, botere banaketarekin lotura zuzena duela adierazten du:

History teaches us one thing: there are never grounds for complacency in considering a language's position. A thousand years ago, the position of Latin would have seemed

Euskara ingurune globalizatuan

unassailable. Who knows what the position of any language will be in a thousand years' time? Language status, as we have seen, is intimately bound up with political, military, economic and cultural power, and as these variables alters, so languages rise and fall. Futurologists do not find it difficult to envisage scenarios in which, for example, Arabic, Chinese or Spanish becomes the next world language.

Baina gaur gaurkoz, ingelesa da jaun eta jabe nonahi, eta Pueyo-k eta Turull-ek (2003) ingelesa interlingua globala izatera eraman duten arrazoiak zerrendatu dituzte:

Cal reconèixer que per molt raonables que ens puguin semblar, les temptatives de divulgar una llengua artificial com l'esperanto, de la qual ningú no pugui dir que és la seva, no han reeixit... El nombre de parlants nadius i, sobretot, l'increment accelerat del seus usuaris; el seu potencial econòmic, inseparable de l'imperialisme britànic del segle XIX i de l'actual influència dels Estats Units, i, finalment, el seu pes en l'àmbit de les indústries de la cultura, tant si considerem les publicacions periòdiques científiques (vehiculades, en un 80%, en anglès) o els periòdics, com si ens fixem en àmbits tan populars com la informàtica, la música pop o els mitjans audiovisuals.

Ingelesa Europan hartzen ari den hegemoniaren aurrean, Grin-ek (2004) hedapen horrek herrialde anglofonoen dakarzkien onura ekonomikoen inguruko abisua eman digu:

...naît une dynamique de diffusion de plus en plus irrésistible d'une langue, en l'occurrence l'anglais, qui en vient petit à petit à être considérée comme lingua franca... N'oublions pas, en effet, que toute forme d'hégémonie linguistique donne lieu à une redistribution massive de ressources en faveur des locuteurs natifs de la langue élevée au rang d'hégémon.

2.2.6.4 Internet, "lehen" munduko hizkuntza guztientzako etxea

Lehenago jaso dugu komunikazioaren mundura Internetek ekarri duen iraultzaren berri. Hizkuntza guztien erreproduktzioarako Internetek ematen dituen aukerak kontuan hartuta ere, Interneten izaera iraultzaile hori beste behin azpimarratu beharko genuke.

Ikuspegi oso baikorra du Crystal-ek (2004) Internetek hizkuntza aniztasunari ematen dizkion aukeren inguruan:

Euskara ingurune globalizatuan

There is a further reason for the revolutionary status of the Internet – the fact that it offers a home to “all” languages – as soon as their communities have a functioning computer technology, of course. Its increasingly multilingual character has been the most notable change since it started out, not very long ago, as a totally English medium.

... In certain parts of the world, the local language is already dominant.

... The Internet is the ideal medium for minority languages...

...The Web offers a World Wide Welcome for global linguistic diversity.

Onuren artean, Crystal-ek (2004) Internetek hizkuntza gutxituen komunitateak trinkotzeko balio duela ere aipatzen du eta adibide gisa txatguneak jartzen ditu:

Chat rooms, moreover, are a boon to speakers living in isolation from each other, as now there can be a virtual speech community to which they can belong.

Sagarna-k (2007) ere Internetek eta informatikak euskararen kultur produkzioari ekarri dizkioten onurak nabarmendu ditu:

Beti esan dut azkeneko hogeitertan, jo dezagun, gure alde egon dela informatika. Adibidez, liburu bat publikatzea gaur egun askozaz ere errazagoa da, proportzioan behintzat, duela lau urte baino. Zuzenean plantxara informazioa bidaltzea edo fotomekanika bitartez fotolitoak egitea... izugarri merkatu, erraztu eta azkartu da prozesu hori. Hori dena gure mesederako izan da. Guk, besteak beste, alfabeto latindarra erabiltzen dugu. Ez daukagu konplikaziorik horrekin, israeldar edo arabiarrek izan zezaketen bezala. Teknologiak balio izan du, aprobetxatu dugu eta probetxu ona ateratu diogu. Oso ondo..

Baina dena ez da zuria amaraunean. Internetek hizkuntza gutxiei ematen dizkie aukera berak, bai, baina gaur egun Interneten “lehen” munduko hizkuntzek, nagusi zein gutxituek, duten presentzia hizkuntza horiek kalean, etxean, lan munduan edo beste edozein alorretan duten presentziaren parekoa da oro har. Hizkuntza komunitateek duten indarra (ekonomikoa, demografikoa, normalkuntza-maila...) Interneteko edukien bolumenean ere islatzen da. Hots, ingelesa da Interneten hizkuntza erabiliena eta atzetik datozkio beste hizkuntza nagusiak: alemana, espainiera, frantsesa... Eta horrek

Euskara ingurune globalizatuan

“Interneten hizkuntza funtzioa” hizkuntza nagusien esku geratzeko arriskua dakar, Zarraga-k (2007) nabarmendu duenez:

Interneten zabalduen dagoen hizkuntza ingelesa da, eta edozein gairi buruzko informazioa bilatu nahi izanez gero, ingelesez aurkitzea posible da. Gaztelaniak ere nahikoa presentzia du. Hizkuntza nagusiek, beraz, informazio gehiago sortzeko aukera dute, eta honek hizkuntzak bakantzeko arriskua dakar.

... Ondorioz, hizkuntza guztiak egoera diglosiko batera helduko lirateke (eta seguruenik heltzen hasiak dira), non funtzio batzuetarako beste hizkuntza bat erabiltzen hasten diren (ingelesa). Funtzio horiek garatu gabe geratuko lirateke hizkuntza txikiagoan eta nagusiak lekua kenduko lioke apurka. Esan gabe doa hizkuntza txikiaren erabileran ez ezik, kalitatean ere eragina baduela honek, kalkoak eta maileguak etengabeak izango baitira. Beraz, globalizazioa eta Internet bera mehatxu bat dira hizkuntza txikientzat.

Interneten hizkuntza gutxituek duten edukien kantitateri begiratzeaz gain, Fernández Hermana-k (2002) eduki horien izaerari ere erreparatu zion:

En el cas del castellà, en el cas de les llengües , si em permeteu, constitucionals (com el català, el gallec i el basc), estem pèssimament perquè no generem encara suficients recursos en les nostres llengües. I no en generem perquè tenim encara una perspectiva summament d'aparador, és a dir, d'anar a aquest espai global per dir qui som, i això pot ser que tinga un cert interès, però no estic completament segur que quan parlem d'una llengua la qüestió saiga dir qui som.

En el món de les xarxes, el problema no és que es parle o que no es parle una llengua, sinó de quina manera nosaltres expressem la riquesa cultural que tenim per mitjà del a nostra llengua.

Disneyk itzulita ematen ditu filmak Espainian, Argentinan eta gainontzeko herrialde hispanoetan. Disney ez da ingelesa inposatzen ari baina munduaren euren ikuskera ari dira hedatzen, euren kultura ari dira hedatzen. Horrexegatik, Fernández Hermana-k hizkuntza gutxituen komunitateek euren eguneroko bizimoduarekin, kulturarekin, lotutako edukiak sartzeko proposatzen du, Disney-z haratagoko kulturek amaraunean (eta munduan) isla izan dezaten.

Euskara ingurune globalizatuan

2.3 Globalizazioa: onerako ala kalterako?

Izua eta miresmena eragiten ditu jendartean globalizazioak. Batzuentzat uholde dena beste batzuentzat igerian aritzeko itsaso da. Aurreko orrietan globalizazioaren eraginetako batzuk zeintzuk diren ikusi dugu eta alderdi positiboak eta negatiboak azaldu dira:

- Hazkunde ekonomikoa vs. enpresen deskokatzeta eta langabezia.
- Bidaiatzeko erraztasuna vs. bortxazko emigrazioa.
- Kulturen arteko gerturatzea vs. kultura eta hizkuntza gutxituen desagerpena...

Baina zeinek du pisu handiagoa, alde positiboak ala negatiboak? Pueyo eta Turull-ek (2003) ere ez diote erantzun garbirik eman:

La globalització ha posat en contacte allò que és local i allò que és mundial, i ha encetat un procés d'eliminació de les fronteres, sobretot en allò que és necessari per a convertir el planeta en un espai econòmic i comercial únic. Cal dir que aquest procés no pot ser definit, de moment, ni com a intrínsecament negatiu ni com a absolutament positiu.

Globalizazioaren kontzeptuaren alde positibo eta negatiboa ederki jaso ditu Sampedro-k (2002) metafora honetan:

Zoritxarrez, elkartasuna ez da globalizatzaileen jarrera nagusia... Erretzaile pasiboek ez dute tabakoaz disfrutatzen, baina minbizia eragiten duen kea arnasten dute; horrelaxe pairatzen dituzte masa globalizatuek eragin negatiboak, globalizatzaile gutxi batzuek beren pribilegioez disfrutatzen duten bitartean.

Globalizazioaren kontzeptu soilaren alde egiten du Chomsky-k (2006), baina gaur egungo globalizazio ereduaren ikur den kapitalen mugimendu askea guztiz antidemokratikotzat jo du:

I am in favour of globalization... The question is what form it should take... Globalization that does not prioritize the rights of people will very likely degenerate into a form of tyranny, perhaps oligarchic and oligopolistic, based on concentrations of tightly-linked state-private power, largely unaccountable to the public...

Euskara ingurune globalizatuan

I agree with Adam Smith that free movement of people is a core component of free trade. As for free movement of capital, that's a totally different matter. Unlike persons of flesh and blood, capital has no rights, at least by enlightenment/classical liberal standards. As soon as we bring up the matter of free movement of capital, we have to face the fact that while people are in principle at least equal in rights, in a just society, talk of capital conceals the reality: we are speaking of owners of capital, who are vastly unequal in power, naturally.

In the real world, free movement of capital entails radical restriction of democracy...

Savater-ek (2005), globalizazioaren alde ilun horiek mugatzeko proposamena egiten du eta globalizazioaren alde onen praktika aldarrikatzen:

Gaur egun, globalizazioak duen alde txarrari mugak jarri behar dizkiogu: finantza-kapitalari, armen trafikoari... Globalizazioak giza eskubideen defentsa, guztientzako heziketa eta haurren babesa hartuko balitu, orduan ez luke ezer txarririk, eta ona izango litzateke kultura guztientzat. Kulturek ez dute ezertxo ere irabazten itxita egonda edo beren burua artifizialki babestuz gero; gaur egun, ordea, kulturak biziberritu egiten dira elkartrukearen bitartez. Esaterako, Bilbok asko irabazi du Guggenheimen moduko museo batekin. Gaur egun berdina edo ezberdina dena bereganatzeko gaitasuna da kultura, norberak egiten duen transformazio sortzailea, berrikuntza horiek aintzat hartuta. Globalizazioa hor dago, ezin da onartu edo ukatu, hautazko zerbait balitz bezala. Globalizazioa beldurrik gabe erabili behar da gure kulturaren alderdi humanistenen alde.

Azken urteetako ikuspegi baikorrek globalizazioaren hasierako pauso eta mehatxuen aurrean sortu zen etsipenari mugak jarri dizkiote eta globalizazioak hizkuntza aniztasunari eskaintzen dizkion aukerak nabarmendu dituzte. Globala lokalera ekartzeko bidean hizkuntza gutxituek joka dezaken rolaren berri eman digu Quebec-etik Harris-ek (2004):

Il est donc possible que la mondialisation, en contribuant à l'adaptation locale, suscite en réalité un intérêt accru pour les langues minoritaires et une demande plus grande pour l'apprentissage de forme de ces langues. De plus, une entreprise multinationale aura besoin de personnes polyglottes aux fins de la distribution sur les marchés locaux.

Euskara ingurune globalizatuan

Hari beretik jo du Farwell-ek (2007) eta enpresa globalek produkziogune lokaletan errotzeko eta merkatu lokaletan arrakasta izateko bidean hizkuntzek eta, nahitaez, hizkuntza teknologia berriek izan dezaketen garrantzia aldarrikatzen du:

Merkatuaren zabalkundeak eta enpresen deskokatzeak, besteak beste, komunikazio arazoak sortzen dituela azaldu du Farwell-ek. Hizkuntza teknologia berriek, itzulpen automatikoak kasu, hizkuntza aniztasunaren oztopoa gainditzen laguntzen dute.

...Handi izan nahi duten enpresek kontsumitzailearenganako hurbiltasun itxura ere eman nahi dute eta horretan ere, hizkuntzek protagonismoa hartzen dute.

Europara etorriz, Zendoia-k (2006) hizkuntza lokalen multzoak edo, beste era batera esanda, hizkuntz aniztasunak Europaren integrazioan, garapenean eta berrikuntzan izango dituen funtzioen berri eman digu:

If diversity becomes the main agent of innovation, languages will have a dual role in the integration and development of Europe: they will be the cohesive element of the groups that will move this process forward and the reflection of pluralism in expressing and understanding reality.

Eta badirudi Zendoia-k baduela jarraitzailerik Europako Parlamentuan. Izan ere, Eleaniztasunerako Batzordeko komisario Leonrad Orban-ek hauxe adierazi zuen, 2007an izandako konferentzia batean:

[Eleaniztasunak] Europar Batasuneko bereizgarri izan beharko luke, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren alorretan, eta nik ahalegin guztiak egingo ditut eleaniztasunaren ekarpena EBko politiken garapenean sartzeko.

Ahalegin horrekin bat, Europa osoko hizkuntza komunitateetako 40 ordezkariak Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea (NPLD) ezartzea erabaki dute 2007an.

Hizkuntz ekologiaren diskurtsoa eta hizkuntza gutxituenganako babesa indarra hartzen ari da azken urteetan eta horrek onurak baizik ez dakarzkie hizkuntza gutxituei. Crystal-ek (2004) ere jaso du bilakaera horren berri:

Public interest in world language diversity is steadily growing, partly because the global story is being seen repeatedly in the histories of individual languages at risk, many of which are in Europe...

Euskara ingurune globalizatuan

The strongest ecosystems are those which are most diverse. And, in its application to human development, the point has often been made that our success in colonizing the planet has been due to our ability to develop diverse cultures which suit all kinds of environments. The need to maintain linguistic diversity stands squarely on the shoulders of such arguments. If diversity is a prerequisite for successful humanity, then the preservation of linguistic diversity is essential, for language lies at the heart of what it means to be human...

Crystal-ek hizkuntz aniztasunaren aldeko aldarri sutsua egin du. Hizkuntz aniztasunaren galeraren inguruko "alerta egoera" iritzi publikoari helarazteko beharra ikusten du eta horretarako lehen ez genuen tresna eraginkorrik orain badaukagula azpimarratzen du: Internet.

Getting a sense of "red alert" into the public mind, on a global scale, is probably the most critical linguistic initiative which has to be taken in the new millennium. A decade ago, it would have been very difficult to see how this might be done. Today, a number of avenues have opened up, largely due to the opportunities provided by the third feature of the language revolution – the Internet.

Ikusitakoak ikusita, ezin ziurtatu, beraz, globalizazioa hizkuntza gutxituentzat oro har kaltegarri edo onuragarri den. Ezin jakin globalizazioaren eragin positibo eta negatiboen balantzea zein den. Gainera, baliteke balantze hori hizkuntza gutxitu batzuentzako positiboa izatea eta beste batzuentzako, berriz, guztiz negatiboa.

Neurri batean hizkuntza gutxituen komunitateen esku ere badago globalizazioaren eragin txarrak moteltzea eta alde positiboak katalizatzea. **Hizkuntza komunitateen asmatu, sortu eta berritzeko jarreran** ikusten du Botella-k (2002) globalizazioaren arriskuak murriztu eta aukerak aprobetxatzeko **giltza**:

Inventar i crear, es devenir un referent de producció popular de qualitat és el que pot fer que Barcelona, Sant Cugat, Perpinyà, Ciutadella, València o Alcoi passin a ser llocs reconeguts, on les tradicions i les cultures pròpies, potenciant la creativitat de la seva gent, donin lloc a una presència decisiva en l'àmbit de la producció destinada al món audiovisual.

Per tant, com en tantes altres coses, un mateix repte comporta a la vegada riscos i oportunitats. Els riscos són clars, i segurament són enormes; però l'oportunitat hi és:

Euskara ingurune globalizatuan

només cal reconèixer-la i jugar les cartes necessàries per a aprofitar-la. Ara ens tocarà a tots nosaltres decidir quin paper tindrem en el nou context. Desaparèixer o anar endavant dependrà només de nosaltres.

Euskara ingurune globalizatuan

3 GLOBALIZAZIOA ETA EUSKARA

Eta globalizazioa nola ari zaio eragiten euskarari? Migrazio-fluxu ikaragarriek hiltzorian jarri al dute euskara? Atzerritik etorritako enpresa multinazionalak lan mundutik euskara guztiz egotzi al dute? Euskaldunon komunitatean Interneten ON ala OFF dago? Galdera horiei erantzuten saiatuko gara datozen orrietan, 2 atal hauen egoera diagnostikatuz:

- Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak.
- Enpresen mundua.

Euskara mendeetan egon da espainiera eta frantsesarekiko ukipen egoera bizian. Orain, berriz, globalizazioak hizkuntza gehiago sartu ditu joko-zelaian eta ikusi egin behar denentzako lekurik dagoen. Ikusi egin behar zein hizkuntza gailentzen den zein funtziotan. Amezaga-k (2005) ikusten dio lekurik euskarari:

Globalizazioa munduan nola garatzen ari den ikusita, ahaltsuenen boterea areagotzen ari dela ikusten dugu, ekonomian bezala kulturaren ere. Kultur industriaren kontzentrazioa eta hedapena ditugu horren lekuko, eta horiek nekez lagunduko diote euskal kulturaren garapenari. Hala ere, azken honi zorrotz begiratu behar diogu, ahal ditugun zirrikitu guztiak baliatzeko. Globalizazioarekin batera, eta haren ondorio gisa, maila ertaineko entitateak pisua galtzen ari dira, eta gure bizitza mutur biren artean antolatzen ari da gero eta gehiago: globala eta lokala. Euskal kulturak, lokala den neurrian, agian espazioren bat eduki lezake eskema honetan. Hizkuntzetan, adibidez, honela islatzen da ideia hau: mundu globalizatuan ibiltzeko hizkuntza bat ezarri da jadanik (ingelesez), eta beste bat behar dugu etxean ibiltzeko. Euskarak ondo bete lezake paper hori, baldin egoeraz baliatzen badakigu.

Garate-ren (2006) iritziz, berriz, euskarak Euskal Herriaren independentzia nahitaezkoa da euskara gaur egungo ingurune globalizatuan bizi dadin eta, horrenbestez, 7 herrialdeen egungo egoera politikoa aintzat hartuta, badirudi euskarak jai duela:

Irakasle hizkuntzalari guztiak gauza bera esaten didate. Beharrezkoa ez den hizkuntzak, globalizatua dagoen mundu honetan ez duela etorkizunik.

Euskara ingurune globalizatuan

Garbi ikusten dugu, independentziarik gabe euskara ez dela beharrezkoa izango eta Euskal Herria Erdal Herria bihurtuko dela... Ez dago inongo dudarik. Independentziarik gabe euskara luzaroan galdu egingo da. Beharrezkoa izango ez delako.


Baina, iritziak iritzi, ikus dezagun zein egoera bizi duen euskarak aurrez aipatutako 2 atal horietan.

3.1 Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak


3.1.1 Internet: datuak eta interpretazioa

Lehenik eta behin, ikus dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko **Interneten erabileraren inguruko zenbait datu** (iturria: EUSTAT, IGIF Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak):

- EAeko 14 urtetik gorakoen arteko Internet erabiltzaileak.



- 2007ko II. hiruhilekoan EAeko **15-24 urte** bitartekoen arteko Internet erabiltzaileak:




Euskara ingurune globalizatuan


- Merkataritza elektronikoari dagokionez, 2007ko II. hiruhilekoan EAEko 237.900 pertsona izan dira sarearen bidez produktu edo zerbitzuren bat erosi dutenak, hau da, Internet erabiltzaileen %28a.

Ikus dezagun orain **euskarak Interneten duen lekuaren** berri emango digun zenbait datu:

- EAEko Internet erabiltzaileen kopurua eta euskaraz (ere) nabigatzen dutenen kopurua (iturria: BAZTARRIKA, Patxi [Eusko Jaurlaritza-HPS]):



- Euskaraz nabigatzen duten EAEko biztanle kopurua:




- [Sustatu](#) euskarazko webgune elebakarrera sartzen diren internauten (euskaldun) **%65ek nabigatzailea espainieraz** konfiguratuta dauka. Horrela, beste hainbat webgune eleanitzetan automatikoki espainierazko bertsioa azalduko zaie.
- 2007ko ekainean zeuden **euskarazko blog kopurua**: 5.464 (iturria: ARANZABAL, 2007, [Faroa](#) bloga). Nazioarteko ratio berak aplikatuta, blogen %55 "bizirik" (azken 3 hiletan *post* berririk dutenak) daudela suposatuz, 2007ko ekainean euskarazko 3000 bat blog "bizi" zeuden.


Euskara ingurune globalizatuan

Ikusi ditugu hainbat datu baina onak al dira datuok? Zer moduz gabilta Euskal Herrian Interneterako sarbideari dagokionez, aurrean ala atzean? Euskararen erabilera handia al da Interneten? Euskaldunok kalean bezainbeste egiten dugu euskaraz Interneten? Ikus ditzagun aurreko datuok interpretatzen lagunduko diguten beste zenbait datu.

- Munduan 1.114.274.426 Internet erabiltzaile daude (populazioaren %17) (iturria: Wikipedia). Australia, Malaysia, Zeelanda Berria, Japonia, Hego Korea, Erresuma Batua, Alemania, Suitza, AEB, Portugal eta Eskandinavia osoaren **atzetik** gabilta.




- Munduan 100.000.000 blogetik gora daude (iturria: [Gartner](#) eta [Technorati](#)). Lotu ditzagun blog kopurua eta Internet erabiltzaileen kopurua, maila globalean, batetik, eta euskarari dagokionean, bestetik. Euskaldunok **euskarazko blogintzan oso aktibo ez** gabiltzala adierazten duten datuak jaso ditugu: munduan 11 erabiltzaileko blog bat dago eta Internauta euskaldunon artean*, berriz, 87 erabiltzaileko dago euskarazko blog bat.




* Internauta euskaldunak: euskaldun kopurua (1.033.900, Wikipedia) x Internet erabiltzaileen EAEko batezbestekoa (%46, Eustat) = 475.594 internauta euskaldun

Euskara ingurune globalizatuan

- Euskaldunon kopurua (1.033.900 euskaldun, Wikipedia) munduko populazioarekin (6.000 milioi inguru, Wikipedia) alderatzen badugu ere ez gara oso leku onean geratzen eta, beraz, euskal blogosferan egon daitekeen baikortasuna erlatibizatzeke moduan geundeke: munduan 60 biztanleko blog bat dago eta euskaldunon artean, berriz, erabiltzaileko dago euskarazko blog bat.



- EAEko Internet erabiltzaileen %20,5ek nabigatzen du euskaraz (iturria: EUSTAT, 2007). Aldera dezagun datu hori euskarazko kale erabileraren Euskal Herriko datuarekin (iturria: EDB, 2001) eta EHko euskara gaitasunaren datuarekin (iturria: EDB, 2001).



3.1.2 Internet: argi-ilunak eta jarraibideak

Aurkeztutako datuak datu, Interneten euskarak duen egoera modu baikorrean zein ezkorrean baloratzen duten adituak ditugu.

Joxe Aranzabalek, 2007ko maiatzean Donostian egin zuten Informatikari Euskaldunen Bilkuraren sarrera hitzaldian hala zioen:

Euskaldunok gutxi gara. Hala ere, lehendabiziko aldiz aspaldiko partez, bizkor samar erantzun diogu Interneten desafioari. Aurki.com agregatzailea izan daiteke horren

Euskara ingurune globalizatuan

ispilurik adierazgarriena. Izan ere, Aurkik ia 400 informazio iturri jasotzen ditu euskaraz. Hori gertatzen da Euskal Herrian, non egunkari bat euskaraz ateratzeko ehun eta piku urte behar izan genituen. Bada zerbait.

[Patxi Baztarrika](#) Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko sailburuordeak ere, "garenaren neurriaz" mintzo, nabarmendu zuen euskal hiztunok munduan dugun pisu demografikoa eta Interneten dugun presentzia alderatzen baditugu, aldea, diferentzia, "gure aldekoa" dela nabarmen.

Ez zen hain baikor ageri Internet aditu [Luistxo Fernández](#) Azpeitian 2006ko azaroan [Uztarría](#)-k antolatutako "Internet eta euskara" hitzaldian:

Norbaitek esan du "blogen tren hartu dugu" baina ez da egia, katalanek bai, katalanek hartu zuten tren [Vilaweb](#)-ekin...

Trena hartu edo ez, ezin uka behintzat tren estazioan gaudela eta gero eta determinazio handiagoa dugula trenak hartzeko. Orain urte batzuk okerrago geunden, Fernández-ek (2006) aitortu duen gisara:

Internet, orain dela hamar urte (1996), ingelesez zegoen gauza bat zen. Han zebiltzanak amerikanoak ziren... Nik uste nuen, orduan, 96an, egin behar zena zela Euskal Herriaz gauza gehiago esplikatzea eta ingelesez... Gure lehenengo galdera zen: zer dago Euskal Herriaz? (ingelesez). Gero hasi ginen galdetzen: zer dago euskaraz?

Eta oraingo egoerara iristeko giltzarri izan dira Web 2.0a eta internauta euskaldunen parte-hartzea.

Orain entzuten dugu "gehiegi dago Interneten", "galdu egiten naiz Interneten", eta ez da egia; ia ezer ez dago Interneten euskaraz... hemen gaude 98ko egoeran, gaude esplorazioan, notizia da Interneten norbaitek zerbait euskaraz jarri duela... Azpeitian Uztarría dago baina ez dago horrelako albistegi lokalik Eibarren, Iruñean... notizia izan beharko litzateke "hain berandu sarean?"

Euskaraz zer dago gaur egungo panorama honetan? Erabiltzaileek erakundeen gainetik salto egin dugu... blogek eta halako plataforma batzuk edukien ugaltze handi-handia ekarri dute, instituzioek lortu ez dutena... era horretan ari da ugaltzen euskarazko edukia, jendearen aportazioekin... laguntza batzuk funtzionatu dute, edukiak kudeatzeko tresna erraz xamarrek sortu izan ditugu zenbait enpresak eta tresna

Euskara ingurune globalizatuan

horiekin sortutako webguneak dira benetan edukiak eguneratuta mantentzen dituztenak... baina, orokorrean, euskarazko produkzioa txikia da.

Interneteko euskarazko produkzioa txikia da, bai, baina blogei esker izugarri ari da handitzen. Euskarazko liburu salmentak txikia izaten jarraitzen du baina historian inoiz baino gehiago irakurtzen eta idazten dugu euskaraz, blogei esker. Euskal Herriko 8. probintziaren kategoria eman dio [Anjel Lertxundik](#) (2005) eta blogintzak ekar dakizkiokeen –dakartzkion– onurak [zerrendatu ditu](#). Besteak beste, hauek:

- *Euskararen erabilera ere ugaria da: aspaldian sufritzen ari garen euskara estandar askotan nekatua baino harago (edo honantzago) sortzen diren saio libreagoak ditugu.*
- *...hedabide tradizionaletan baino askatasun gehiago antzematen da gaiei heltzerakoan, estiloan, idazkuntzan, debatean...*
- *Iturri tradizionaletatik nekez ezagutuko genituzkeen munduak, ikuskerak, ahotsak (batez ere ahotsak!) jasotzen ditugu.*
- *Euskarriak posible egiten duen feed-backetarako aukera aparta da*
- *Blogei esker, indarra galtzen ari da [idazteko] izu eszenikoaren itzala.*
- *Stablishment kultural tradizionalak (argitaletxeek, hedabideek...) ezin die mikroa eta bozgarailua eman ahots guztiei. Blogei esker, aukeren berdintasuna posibleagoa da.*

Ohiko komunikabideen Interneterekiko jarrera ere kezka iturri da internauten artean. Internauta askok ezin uler dezake nola diharduten komunikabide askok oraindik ere soilik papera erabiltzen edo Interneteko bertsioa paperezkoaren kopia soiltzat erabiltzen. Euskarazko komunikabideek profil minimo eta segidista mantendu dutela kritikatu du Fernández-ek (2006):

Inoiz ez dira disruptiboak izan ([Indymedia](#) edo [Sustatu](#) kasu ez tradizionalak alde batera utziz). Blogen eztrandak eta parte hartzeak beraien paper hegemonikoa "kolokan" jartzen hastean jarri dira gehiago mugitzen. Horren adierazgarri, hau: orain dela gutxi arte gure medio idatzi zein telebisiboen bertsio digitaletan ez zen loturarik ageri.

Euskara ingurune globalizatuan

Eta Fernández-ek (2006) Azpeitiko [Uztarria](#) jartzen du eredugarritzat, komunikabide lokalen artean:

Uztarria.com-i txalo, jakina... Nik uste uztarria.com-ek lortu duen zabalpena ez duela lortu, ez euskaraz eta ez gazteleraz, Euskal Herriko beste inongo proiektuk. Eta hori nabarmentzeko modukoa da...

Aurrera begira, Fernández-ek (2006) Internetek euskararen biziraupen eta garapenean ezinbesteko rola izango duela aurreikusten du eta euskararen aldeko ahalegina Interneten fokalizatzeko aldarrikatzen du.

Euskara biziko bada biziko da Interneten, etxean eta kalean; ez dago disoziatzerik Internet bezalako tresna bat hizkuntza baten jardunetik hemendik aurrera. Internet etorri da eta geratzeko etorri da, ez dute kenduko.

Euskara fronte guztietan (hezkuntzan, telebistan, merkataritzan, enpresan...) behar dugu baina non jarri lehentasunak? Nik lehentasunak Interneten jarriko ditut... Internet esparru askokin nahasten da; hezkuntzan jada testu liburuak gainditu eta Internet erabiliz, telebista eta Internet gauza bera izango da, merkataritza eta enpresan sarea funtsezko tresna izango da.

Euskarak eta euskaldunok Interneten kalean dugun leku bera izan behar dugu. XXI. mende honetan hizkuntza bat biziko bada, biziko da kalean, biziko da familian eta biziko da Interneten. Honezkerok, Internet komunikatzeko bide bat da. Euskarak iraungo badu beste 100 urte, Interneten iraungo du; dena lotuta dago.

Interneten euskarak dituen etorkizuneko erronkak 4 puntutan laburtu zituen informatikan ingeniari [Esnaola](#)-k (2007), 2006an Donostian egindako [EH 2.0](#) jardunaldien deskarguan:

Software librea da teknologia Euskal Herrira ekartzeko biderik zuzenena... Lan asko egin da baina **era atomizatuan** egin da lana eta ez dago artikulatua... Hauek dira planteatu beharreko lan ildoak:

1. Tresna propioen garapena
2. Eduki propioen ekoizpena
3. Eduki eta tresnen erabilera

Euskara ingurune globalizatuan

4. Euskarazko webguneen agerikotasuna handitzea

2.2.6.4 puntuan aipatu beste egin dut Internetek **hizkuntza komunitatea trinkotzeko** duen potentziala. Eta hizkuntz komunitatearen trinkotzeak gutxitutako hizkuntzen normalizazioan hil ala biziko garrantzia du, Sánchez Carrión, "Txepetx"-ek (1999) azaltzen digunez:

Ya sabemos que la solución... de la normalización del euskara... depende del compactamiento de la comunidad lingüística euskaldun...

¿Qué es compactar localmente la comunidad lingüística?

A nivel local la compactación consiste en hacer viable la comunidad lingüística que se quiere normalizar, posibilitando para la lengua un circuito completo, para los grupos sociales la articulación que optimiza sus posibilidades y capacidades actuales, y para los hablantes individuales la interacción que concreta su voluntad de ser individual en un funcionamiento social: el pueblo que al sostener la motivación existente y favorecer las capacidades, asegura la creación y la transmisión, o, lo que es lo mismo, los procesos productivos y reproductivos.

A partir del momento en que se produce la compactación la comunidad lingüística euskaldun pasa a ser viable ipso facto: local e instantáneamente.

Baina ba al dago Interneten euskal komunitaterik? Artikulatuta al dago ala euskaldunok era atomizatuan dihardugu oraindik ere? Egin al da euskaldunak nuklearizatzen lagunduko duen saiorik, tresnarik?

Badago euskal komunitaterik ala koadrilatxoa baino ez da? Galdera horren harira eztabaida interesgarria piztu da 2007ko irailean informatikari eta internauta euskaldunen artean. Zabaldu.com atariaren sortzaile Zubiaga-k (2007), Interneteko komunitateen definizioa eman ondoren, ez du zalantzarik izan eta Interneten euskal komunitatea existitzen dela aldarrikatu du:

Webgune sorta bezala identifikatu eta interes komunak dituzten eduki-sortzaileen taldea da komunitatea... Euskal komunitatea oso ongi lotuta dagoela zalantzarik ezin dugu izan, eta Google berak ere nahiko ondo daki [komunitatea badagoela](#).

Euskara ingurune globalizatuan

Euskal komunitatearen izanak ez baina Esnaolak (2007) aipatutako agerikotasun edo ikusgarritasunak kezkatzen du Zubiaga:

Kontu batek bereziki arduratzen nau: ikusgarritasun lokalak. Hau da, euskaldun asko dago euskal komunitatean parte hartuko lukeena, baina ezagutzen ez duena. Horrek sendotuko luke, batez ere, euskal komunitatea. Gehiago da lokalean egin dezakeguna, globalean egin dezakeguna baino.

Interneteko "euskal munduaren" ikusgarritasun hori handitu eta euskarazko blog eta webguneak jendartean ezagutarazi nahian, 2007an hainbat internauta euskaldunek bozgorailua hartu eta euskal blogosferaren berri eman du, non eta zenbait komunikabide tradizioaletan: Berria, Gara, Euskadi Irratia eta Info7-n. Ekimen onuragarria inondik ere baina, euskarazko medioen audientzia txikiak tarteko, hankamotz gera daitekeena ahalegin hori erdarazko medio tradizioaletan ere islatzen ez bada.

Garrantzi berezia ematen diot nik komunitate hori artikulatzeari eta komunitate horretara internauta euskaldunen zati handi bat erakartzeari. Izan ere, Internet, erabilera eremu bat gehiago (eta etorkizun ez hain urrunean nagusietako bat) izateaz gain, euskaldunen komunitatea trinkotzeko tresna ere bada; are gehiago, eta ez naiz ari soilik diasporaz, zenbait hiztun isolaturentzat euskara erabiltzeko aukera bakanetako bat da. Hala egiaztatzen du Katixa Agirre (2007) idazle eta blogariak:

Nik badakit (tartean lagun batzuk ditudalako) zenbait pertsonentzat bloga dela euskaraz aritzen diren leku bakarra. Beraz, beste aukerarik ez dutenentzat euskaraz egiteko eremu bat sortu dugu, eta eremu txukuna da, egunero gauza interesgarriak topa baitaitezke.

Euskaldunon komunitatea nuklearizatzeko ekimenak egin izan dira han eta hemen eta ezagunenak, akaso, Bilbon, Ondarroan, Durangon, Elgetan, Donostian... euskalgintzak irekitako kafe antzokiak dira. Kafe antzokia irekitzeko asmotan dabiltzan euskalgintzako elkarteek aztertu egin beharko lukete, nire ustez, kafe antzokiek hizkuntz komunitatearen trinkotzean duten eragina eta dakarten kostua eta, ondoren, Internet bidez komunitatea trinkotuko lukeen gunea eratzeak ekar ditzakeen onurak eta kostuak. Hizkuntz komunitatea trinkotzeko Internet bidezko gunek askotarikoak izan daitezke, adibidez: [Sustatu](#), [Facebook](#), blogak eta blog plataformak, albistegi digitalak ([Goiena.net](#), [Kronika.net](#)...), e-irratia, e-telebista... Denetarako indarra izatekotan, onena, jakina,

Euskara ingurune globalizatuan

“kafe antzokia” bietan, hots, kalean eta Interneten sortzea; hala egin dute Elgetan, [Espaloia](#)rekin.

3.1.3 Hizkuntza teknologiak eta bestelako Informazio eta Komunikazio Teknologiak

Lokalizazioa eta internazionalizazioa askoz garatuago daude gaur egunean mendea hasi zenean baino. Software librearen hedapenak eta Interneten zabalkundeak lagundu du horretan. Gaur egunean, tresna informatikoak askoz prestatuago daude jatorriz, eta horrek lana errazten du. Adibidez, [Meneame](#) tresna librea sarean jarri zuten, lokalizatzeko prest jarri ere, eta hortik atera zen euskarazko klon polita, [Zabaldu.com](#).

Urrun geratu dira jada kostu ekonomiko handiarekin eta atzerapen are handiagoarekin euskarara itzultitako MS Windows 95 eta MS Office 2000ren garai ilunak. Diru asko gastatzen zen programok itzultzen eta euskarazko bertsioa atera orduko programok zaharkituta geratzen ziren.

Software librearen indartzearekin eta, beraz, Microsoft-en kuasimonopolioa murriztearekin, informatika programak, ofimatikakoak zein bestelakoak, itzultzea ez da jada horrenbesteko odolustea. Horrela, euskarara lokalizatutako programa informatikoen eta euskara erabiltzeko laguntza informatikoen unibertsoa oparoagoa da gaur egun.

Oinarrizko **sistema eragileen** artean gaur egun bi dira gehien erabiltzen diren sistema eragileak: Windows eta Linux, biak ere euskaraz ere eskuragarri. Windows-en kasuan, orain urte batzuk produktu hori euskaraz jartzea Eusko Jaurlaritzarentzat oso garestia bazen ere, gaur egun ez dio inolako gasturik ekartzen Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, Microsoft bera arduratzen da interfaze-paketearen euskarazko bertsioa prestatzeaz, finantzatzeaz eta erabiltzaileen eskura jartzeaz.

Ofimatika programei dagokienez, batetik, MS Office 2003aren interfaze-paketea dugu euskaraz eta, bestetik, kode irekiko OpenOffice.org paketea. Azken horrek Windows nahiz Linux gainean funtzionatzen du. Lehengoaren ardura eta finantzazioa Microsoft-en konturakoa izan da eta bigarrenarena, hau da OpenOffice.org-rena, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena.

Euskara ingurune globalizatuan

Momentu honetan, dirudenez, Windows Vistaren eta Office 2007ren interfazeen euskarazko bertsioak ari da prestatzen Microsoft. Horrekin batera, badirudi Eusko Jaurlaritzako HPS Linux sistema eragilearen eguneratze-lanak prestatzen ari dela.

Zuzentzaile ortografikoei erreparatuta, aspalditik daukagu eskuragarri Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa, hainbat bertsiotan: Mac Word X-erakoa, Mac QuarkPress-erakoa, OpenOffice-rakoa, Mozilla Thunderbird-erakoa, Firefox-erakoa, MS Office-rakoa, Xuxenweb...

Zuzentzailearekin batera, idazteko orduan laguntza handia eskaintzen dute hiztegiek. Hiztegiak ordenagailuan 2 eratara erabil daitezke: on line kontsultatuz edo testu-prozesatzailean plugina integratuz.

Hauek dira on line kontsultatu daitezkeen **euskara banku terminologiko** eta **hiztegi**etako batzuk: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#), [Hiztegi Batua](#), [3000 hiztegia](#), [Hauta Lanerako Euskal Hiztegia](#), [Harluxet Hiztegi entziklopedikoa](#), [Sinonimoen eta antonimoen hiztegia](#), [Morris hiztegia](#)...

Bestalde, hiru euskal hiztegiaren plugin-ak daude eskuragarri: Elhuyar eu-es / es-eu hiztegia, Elhuyar eu-fr / fr-eu hiztegia eta UZEIren Sinonimoen hiztegia.

Internetarako **nabigatzaileak** (Internet Explorer, Firefox...) eta **posta elektronikoko** aplikazioak ere euskaraz daude eta Windows nahiz Linux sistema eragileekin batera eskuratzen dira.

Aipatutako horiez gain, badaude erabilera hain orokorrekoak ez diren beste software batzuen euskarazko bertsioak eta hainbat katalogotan daude jasota, tartean [Lantalan.com](#) webgunekoan.

Mundu gero eta globalago honetan, kanpotik enpresa multinazionalak datozkigunean edo hemengo enpresa gehienak atzerrirako jauzia egiten ari direnean, etorkinak gero eta gehiago diren honetan, gaur jandako arraina nondik datorren ere ez dakigunean eta oporretan Zeelanda Berrira joatea arraroa ez den garai hauetan, hizkuntza teknologiek eta, zehazkiago, itzulpen automatikorako tresnek garrantzi berezia dute.

Itzulpen automatikorako teknologia oraindik ere perfekziotik oso urrun dago, euskararen kasuan ingelesarenean baino are urrunago, baina egunetik egunera geroz eta

Euskara ingurune globalizatuan

gertuago. Eta garapen horren adibide dira itzulpen automatikorako hainbat tresna: [Google Translate](#) (12 hizkuntza), [Opentrad](#) (euskara, espainiera, katalana, galegoa)...

Orokorrean perfekziotik urruti dauden hizkuntz teknologia horiek euskararekin zailtasun are handiagoak dituzte, Sagarna euskaltzainak (2007) adierazten digunez:

Nire ustez izan ditzakegu aukerak, ordea. Hizkuntza indoeuroparrek, daukaten egiturarekin, guk baino errazago daukate tratamendu automatikoa. Besteak beste, daukagun deklinabidearengatik. Euskaraz, aztertzaile morfologikoak egin dira, ez frantsesak, ez gaztelarak ezta ingelesak ere behar ez dituztenak. Zailtasun bat da, baina bestela beharko ez genituzkeen zenbait tresna asmatzera behartu gaitu. Hori beste hizkuntzentzat ere baliogarria izan daiteke. Zergatik ez da punta-puntako hizkuntzaren industriaren aldeko apustu estrategiko bat egiten? Ez dira ez inbertsio ez lur sail handiak behar. Buruak behar dira lanean.

Hizkuntza teknologietan inbertsio erabakigarriak egiteko beharra azaleratu du Sagarna-k (2007), momentuak eta etorkizunak hala eskatzen baitu:

Orain, ordea, beste momentu bat bizitzen ari gara: informazio eta komunikazio teknologia hizkuntza jakinetarako garatzen ari da. Programa horiek bereziki prestatu behar izan dira euskararako eta programa horiek gai izan behar dute, besteak beste, deklinabide atzizkiak aintzat hartzeko. Hizkuntza bera da teknologiaren langai. Orain arte, teknologiak hizkuntza lantzearen aldetik izan dituen abantaila guztiak izan ditu euskarak ere, baina aurrerantzean beste aplikazio mordoa sortuko da eta euskara ez bada horietara iristen hizkuntza traketsa bilakatuko da. Erronka berriak datoz.

Eta 2.2.5.4 puntuan aipatu bezala, **etorkizunean** Internet eta telebista bat baldin badira, irudi barruko bilaketak indarra hartu behar baldin badu eta etorkizuneko terminal nagusia telefono mugikorraren antzekoa izan behar bada, badirudi gaur gaurkoz hizkuntz teknologietan eta itzulpen automatikoetarako aplikazioetan euskarak dituen **erronka nagusiak** hauek izan daitezkeela: ahotsaren ezagutzarako, karaktereen ezagutza optikorako ([OCR](#)), eskuzko idazkerako karaktereen ezagutza intelighenterako ([ICR](#)) eta euskararen ezaugarri berezien tratamendurako teknologiak garatzea. Eta horretarako dirua behar da.

Euskara ingurune globalizatuan

3.2 Enpresa mundua

Azken urteotako globalizazio prozesuaren eraginekiko sentikortasunik handiena, segur aski, enpresen munduak izan du. Munduko distantziak inon txikitu badira, hori enpresa munduan izan da.

Enpresa global asko dugu inguruan: atzeritik etorritakoak, atzerriko kapitalek erositakoak, atzerriko beste enpresa batzuekin bat-egite formularen batekin elkartutakoak, kapitala bertokoa izanik kanpoan produkzio plantak ireki edo erosi dituztenak, produkzio planta Euskal Herrian eduki eta hornigaiak atzerrian erosi edo produktuak atzerrian saltzen dituztenak...

Baina multinazional izateagatik euskara erabiltzeari utzi diote? Ala, alderantziz, multinazional kutsua izateagatik euskara gehiago erabiltzen dute?

3.2.1 Egoera ekonomikoa eta euskara

Globalizazio prozesuaren azken urteekin "mendebaldeko" herrialde gehienetan bezala Euskal Herriko egoera ekonomikoak ere hobera egin du nabarmen eta datu makroekonomikoen arabera ekonomikoki inoiz baino hobeto gaude euskal herritarrok.

Historian zehar gertatutako ekonomia sistemen aldaketak euskararen egoerari kalterako eragin izan diote, Zendoia-k (2006) gogorarazten digunez:

Throughout the ages each change in the economic system has brought about some kind of change in the situation of Basque. When mentioning the most important points and taking those nearest to us in time into consideration, we should like to highlight the following:

- *Insofar as new economic sectors have emerged and expanded, Spanish or French has become the language of communication. Each step forward in economic development has meant a step backwards for Basque.*
- *The immigration movements forced by economic development have been to the detriment of Basque, because immigrants have had no need for Basque.*

Euskara ingurune globalizatuan

- *The authorities and the ruling classes, in general, have not shown any attitude in favour of Basque, because they have assimilated Spanish or French and have been the model for this assimilation.*
- *For these reasons, Basque has over the centuries been losing prestige, because it has been regarded as the language of backward sectors that have no culture.*

Baina aurreko aldaketa ekonomiko sakonek ez bezala, globalizazioak ekarritako aldaketek euskararen berreskurapen zantzuekin egin dute bat eta horrek itxaropenerako tarterik ere uzten du, Zendoia-k (2006) azpimarratzen duen gisara:

In most (if not to say in all) of the changes that have taken place throughout history Basque has for the most part succeeded in preserving the importance and use it had until the moment of each change. This is why developments during the last few years, in which the introduction of new technologies and parity with modern societies are taking place at the same time as the revival of Basque, are for the first time offering the Basque language a glimmer of hope.

Itxaropen hori are handiagoa izan daiteke bizi dugun egoera ekonomiko oparoa Euromosaic-en ondorioekin lotzen badugu. Azterlan horrek adierazten digunez, zenbat eta egoera ekonomiko hobea izan hizkuntza gutxituaren inguruneak, orduan eta egoera hobea du hizkuntza gutxituak. Ondorio hori ere jaso du Zendoia-k (2006):

It is easy to see that, in general, the language groups that are in the best situation are in the regions with a higher economic level, and conversely, the languages that are about to die out are to be found in the poorest regions in Europe... These results lead us to a paradox: even though economic development is damaging for minority languages, the communities in a better situation owing to this development do not suffer so much linguistic damage and, in contrast, despite economic development posing a threat for minority languages, in the places where the development itself is weaker, language replacement has been very conspicuous.

As we have analyzed in the example of Basque, our hypothesis is that most of the economic changes that have taken place throughout history have been detrimental for those languages in a minority situation, but in the process linked to economic

Euskara ingurune globalizatuan

development over the last few decades, there have been a number of supplementary social values to safeguard attitudes in favour of minority languages and culture.

Badugu itxaropenik, beraz, oraingo testuinguru ekonomikoak lagunduko ote dion euskarari bere berreskurapen prozesuan. Erantzukizun soziala, langileen gogobetetzea, bezeroenganako hurbiltasuna eta leialtasuna eta lehiakideengandik desberdintzeko beharra bezalako kontzeptuak enpresen munduan hartzen ari diren pisua aintzat hartuta, badugu baikor ere izateko motiborik.

Euskarak izan ditzakeen aukerak baliatzeko orduan, Gipuzkoa Donostia Kutzako Giza Baliabideen Zuzendari Ruiz-ek (2007) euskarak merkatuan duen balioa bistaratu egin behar dela dio:

Barkatu gordintasuna baina, gaur egun, merkatuak zer baloratzen duen, horrek du benetako balioa. Eta euskarak ere merkatu-balio hori erakutsi beharko luke, halako neurri batean behintzat.

... Euskarak badu, ziur, balio ekonomikorik. Kanpotik etorritako entitateak ere euskaraz ikusteak baieztatu egiten du euskararen balio hori, finantza zerbitzuen alorrean.

Txalotzekoak dira, bai, kanpotik etorritako enpresen portaera horiek. Horien bi adibide ikusgarri ezagutu ditugu 2007an:

- IKEAk Donostian euskara hutsean aurrera eramandako "[Nire etxea, nire erreinua](#)" publizitate kanpaina eta
- Repsol YPF multinazionalaren webgunearen [euskarazko bertsioa](#).


3.2.2 Enpresak eta euskara

Besterik diote aurreiritziek, alegia, enpresa lokalek multinazionalak baino ahalegin handiagoa egiten dihardutela euskara babesteko eta gehiago erabiltzeko lanetan. Baina errealitatean horrela al da? Ikus ditzagun **zenbait datu**:

3.2.2.1 Euskara planak: zenbait datu


- Euskararen erabilera handitzeko **planak garatzen ari diren enpresen kopurua** (iturriak: Eusko Jaurlaritza, Emun, Artez eta Elhuyar):

Euskara ingurune globalizatuan




* 2007koak, Eusko Jaurlaritzako HPSren diru-laguntzen onuradunak dira (ikus 1. eranskina).

- 2007an euskara **plana daukaten** (Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak jaso dituzten) **enpresa eta erakundeen tipologia:**



* Aurreko diagraman aipatutako enpresa multinazionalak produkzio plantak edo saltokiak edo ordezkariak Euskal Herritik kanpo ere dituzten enpresak dira.

- Enpresa **multinazionalak** Frantzia eta Espainiako estatuen barruan soilik eta estatuotatik kanpora dauden (multiestatalak) jakiteak ere emango digu pistarik hizkuntzen erabilerari dagokionez:



Euskara ingurune globalizatuan

Euskara plana duten enpresa multinazional eta multiestatal horien artean denetarik dago: zerbitzu eta produkzio enpresak, atzerrian produkzio plantak zein ordezkariak komertzialak dituztenak, kapitalaren zati nagusia Euskal Herrian zein atzerrian daukatenak...

3.2.2.2 Euskara plana duten multinazionalen egindako galdetegiak

Euskara plana daukaten enpresa multinazional zenbait galdetegi (ikus 2. eranskina) helarazi diet eta datozen lerroetan galdetegi horretatik ateratako zenbait jakingarri jasoko dit.

Hauek dira galdetegiak jasotzen duten enpresak: [Fagor Etxetresna Elektrikoak](#), [Carrefour](#), [Alcampo](#), [SJM](#), [Copreci](#), [ABB Niessen](#), [Cegasa](#), [Fagor Ederlan](#), [Eika](#), [Fagor Industrial](#), [MCC Korporazioa](#), [SAM-Tompla](#) eta [Tajo](#).

13 galdetegi bidali eta 10 erantzun jasotzen dituzte. Hauek dira jasotako emaitza nagusiak:

- Enpresaren **hizkuntza ofizialak**: euskara 3 enpresatan, espainiera 5tan, ingelesa 2tan, frantsesa 1en. Enpresa batzuetan hainbat hizkuntza ofizial jasotzen da arauetan eta beste batzuetan, berriz, bakar bat ere ez.
- Lan zentroen arteko **interlingua ofizialak**: 3 enpresek ingelesa, enpresa batek ingelesa eta espainiera, enpresa batek espainiera. Gainontzekoek ez dute interlingua ofizialik baina gehienetan ingelesaren erabilera ari da nagusitzen.
- Enpresa globalizatua izatearekin...
 - o Euskara plana martxan jartzeko arazoak eduki dituztenak: 1.
 - o Euskara plana finantzatzeko arazoak eduki dituztenak: bat ere ez.
 - o Zuzendaritza inplikatzeko arazoak eduki dituztenak: 5.
 - o Atzeritarren euskara planarekiko jarrera: kontrakoa 3tan, aldekoa 2tan.
 - o Kontratazio eta promozio politikan euskara kontuan hartzen da: gutxiago enpresa baten, gehiago 2 enpresatan.

Euskara ingurune globalizatuan

- Eleaniztasun handiagoa kudeatzeko beharrarekin euskara planaren pisua: 2 enpresatan txikitu egin da eta beste 2 enpresatan handitu.
- Galdetegia erantzun duten enpresetako euskara planaren egiturak (Euskara Batzordea...) ez dute kalterako ondoriorik jasan.
- Enpresa globalizatua izateak Euskal Herriko plantetako euskararen erabileran izan duen eraginaren inguruan...
 - Orain ahoz euskara gehiago egiten da 2 enpresatan eta gutxiago 3 enpresatan.
 - Publizitatean euskara gehiago erabiltzen da 2 enpresatan eta gutxiago enpresa baten.
 - Webgunean euskara gehiago erabiltzen da enpresa baten eta gutxiago 3 enpresatan.
 - Intranetean euskara gutxiago erabiltzen da enpresa baten.
 - Softwarean euskara gutxiago erabiltzen da 2 enpresatan.
 - Errotulazioan euskara gehiago erabiltzen da 2 enpresatan.
 - Dokumentuetako euskararen erabilera jaitsi egin da 6 enpresatan eta igo 2 enpresatan.
 - Zuzendaritzaren oharretan euskararen erabilera jaitsi egin da enpresa baten eta igo 2 enpresatan.
- Elkarrizketatuen hainbat kontuekiko **pertzepzio**agatik ere galdetu dut eta honatx erantzunak:
 - Elkarrizketatu gehienek uste dute euren enpresa globalek hizkuntza lokalak errespetatu egiten dituztela. Inork ez du kontrakorik esan.
 - Ia denek azaldu dute enpresa globalizatua izateak hizkuntza aniztasuna handitu egin duela. Inork ez du kontrakorik azaldu.

Euskara ingurune globalizatuan

- 3k esan dute langile elebakarren hizkuntz aniztasunarekiko jarrera hobetu egin dela eta batek kontrakoa azaldu du.
 - 8k esan dute zuzendaritzaren hizkuntz aniztasunarekiko jarrera hobetu egin dela eta batek kontrakoa azaldu du.
 - 10 enpresetatik euskal herritarrek 4tan hasi dira hizkuntza globala (ingelesa) gehiago ikasten eta 3tan beste hizkuntza lokalak (ere) gehiago ikasten hasi dira.
 - 10 enpresetatik atzeritarrak 5etan hasi dira ingelesa gehiago ikasten, 2tan espainiera ikasten eta baten euskara ikasten (kortesiazko formak).
- Elkarrizketatuek jakinarazitako oharren artean hauek dira nabarmentzekoak:
- Enpresa globala izanagatik, zuzendariak euskaldunak izateak eragin ona du euskara planean.
 - Zaila da globalizazio prozesu honetan euskararen erabilera defendatzeko argumentuak aurkitzea, globalizazioaren teoriaren kontra doalako. Enpresa globalek euskal herritarrek eta, are gehiago, euskaldunek duten pisu demografikoa txikia dela deritzote eta pisu horrekin ez dute justifikatzen hizkuntza bat gehiago erabiltzea.
 - Nazioartekotze honen ondorioz hizkuntza ezberdinen erabilera erregulatzearen beharra onartzen da eta euskararentzat landutakoa beste hizkuntzatan erabilgarria izango dela ulertzen da.
 - Kanpoan plantak dituen enpresa eleanitza izatea, askotan, Euskal Herriko plantan emandako euskalduntze pausuen kontra bueltatzen da, hemengo makineria eta dokumentazioa euskaratzen emandako pausuen kontra bueltatzen da: jadanik euskaraz dauden bertoko makinak eta makinaren dokumentazio teknikoa kanpora eramatean plantetako zuzendariak (hemendik joandakoak askotan) euskararen kontrako aitzakia bezala erabiltzen dute, euskaraz egoteak atzerriko plantan arazoak eta zailtasunak sortzen dituela botaz, euskararen kontrako aitzakia bezala. Bestalde aplikazio informatikoei dagokienean lagungarria da kanpoan plantak dituen enpresa eleanitza izatea, hizkuntzentzako multilingua sistemak egokitzen

Euskara ingurune globalizatuan

direlako, eta euskarak ere bere lekua izan dezakeelako. Baina kanpora begiratzea, eta hainbesteren artean euskal hiztunak gutxiago izatean, niretzat kontrako jarrera dutenentzako eskusa perfektua da.

- Espainiako plantak dira arazo. Beraietako langileekin harremana estua da (bilerak, bestelako lan harremanak, topaketak...) eta horrek eragin handia du. Intraneta 5 hizkuntzatan sortzea erabaki da. 5 hizkuntza horiek irudi mailan egongo dira. Edukiari begira itzulpen elektronikoa aztertzen ari dira. Praktikan gaztelania da erabiltzen den interlingua. Eslovakian erosi zen plantak hizkuntza aniztasuna bultzatu du, Eslovakiako langile ia guztiak elebakarrak direlako.
- Katalunian daukagu produkzio planta bat, eta katalana asko erabiltzen dute; horrek balio izan zaigu guri ere ikasteko; adibide ona izan dira guretzat. Turkian ere produkzio planta bat daukagu eta salmenta garrantzitsuak egiten ditugu bertan. Ondorioz, bertakoek instrukzio liburuak beraien hizkuntzan ateratzeko ere eskatu digute. Hizkuntza gehiago hartu behar dugu kontutan enpresa globalizatua izanez gero.
- Nizan, globalizazioaren aurka izandako manifestazioan, izan ginen LAB sindikatuko ordezkari batzuk. Taldeak taldeko enpresa bakoitzari bere autonomia mantendu dio, gauza askotarako behintzat. Eta oraingoz ez dugu inongo arazorik izan hizkuntzari dagokionez.
- Enpresa burua Euskal Herrian finkatua dagoenez, globalizazioak ez du horrenbeste eragin. Aldiz, euskara plana martxan jarri zen ezkerro, hizkuntza aniztasuna eta normalizazioa aurrera pausoak garrantzitsuak eman dituzte
- Nire ustez globalizazioa euskara normalizatzeko prozesuaren "erdi bidean" gertatu edo abiatu zaigu eta lehen pertzepzioa da gure hizkuntzak lehiakide berriak dituela, lana gaitzago jarri zaigula. Hala ere, "globalizazioak zinez globala" izan behar badu merkataritza- eta enpresa-estrategiez eta arlo horietako jardunez gain bestelako balioak ere trukatu beharko genituzke herrialdetik herrialdera. Kooperatibismoak eta euskarak gure eskaintzaren barruan beharko lukete, eta hortik gure izateko moduarekiko babesa eta errekonozimendua etor lekizkiguke, hau da, baita gure hizkuntzarekiko

Euskara ingurune globalizatuan

atxikimenduak ere. Baina horretara heltzeko ezinbestekoa dugu (egin ez dugun) hausnarketa sakona egin eta globalizazioa guk geure balioetatik gidatu berak gu bidera gaitzan utzi gabe...

Datu eta balorazio horiek ikusita, ezin dugu adierazi, oraingoz behintzat, enpresa munduaren globalizazioak orokorrean hizkuntza lokalei kaltea eragiten dienik, ezta orokorrean onuragarri denik ere.

Euskara asko erabiltzen duen bertako enpresa baten nazioarteratzeak onura baino kalte gehiago ekar dakizkioke, elkarrizketatutako baten enpresan gertatu den bezala. Baina euskara baztertuta izan duen bertako enpresa bateko zuzendariak, atzerrirako jauzia egin ahala, hizkuntz aniztasunari balio handiagoa eman dakioke eta etxeko hizkuntza gutxitua babesten has liteke.

Hego Euskal Herriko enpresa batek Huescan (edo Tuteran) planta bat erosteak agian kalte egin dakioke euskara planari baina Lleidan erosteak, aldiz, on. Elkarrizketatuen artean horren ispilu diren 2 enpresa ikusi ditugu.

Atzerriko talde multinazional batek Euskal Herrian erositako plantan euskara planari hauspoa eman dakioke bertoko langile eta bezeroen gogobetetzea handitu nahian edo [EFQM](#)ren kalitate ereduko Erantzukizun Sozialaren atalerako puntu gehiago lortu nahian.

Enpresa global batek bide bata edo bestea har dezake, aldagai asko eta desberdinen arabera. Baina globalizazioak aukerak ematen dizkigu, hori argi dago, eta zirrikitu horiek guztiak probestu behar ditu langile eta enpresari euskaltzaleak. Fagor Etxetresna Elektriakoetako euskara planaren koordinatzaile Txema Abarrategik globalizazioaren aurrean izan beharreko jarrera egoki bildu du esaldi honetan:

Ezinbestekoa dugu (egin ez dugun) hausnarketa sakona egin eta globalizazioa guk geure balioetatik gidatzea, berak gu bidera gaitzan utzi gabe...

4 PROPOSAMENAK

Mundu globalizatu honetan euskarak iraun dezan nahi badugu eremu askori dagozkion tekla sakatu beharko ditugu euskararen pianoak soinu ona izan dezan. Eta, noski, familia, lagunartea eta lan munduari dagozkien notak izango dira partituran nagusi. Eta Internetek hiru eremu horietan funtsezko papera izango du.

Ezin, baina, lan honetan euskararen eremu guztietarako sendagaiak proposatu eta aurrez aztertutako bi arloetarako egindako hainbat proposamen jasoko ditut hemen.

Mezu orokor bat eman nahi nuke hala ere. Globalizazio prozesu atzeraezinak milaka hizkuntza hilzorian jarri ditu eta horietako asko desagerrarazi ditu. Mehatxupearan dagoen euskarak iraun dezan, besteak beste, bere bidea egin behar du, besteena kopiatzera mugatu beharrean. Pertsona eleanitzez osatutako gizartean kopiak ez du balio erantsirik izango. Euskaldunok berritzaile izan behar gara, euskaraz, euskaldunontzat miresgarri eta motibagarri izango diren jarduera berritzaileak egin behar ditugu.

4.1 Internet eta informazio eta komunikazio teknologiak

4.1.1 Administrazio publikoentzako proposamenak

- Handitu Interneten erabilera orokorra: merkatu banda zabalerako sarrera, hedatu wifigune publikoak, hedatu banda zabala herri txikietara (euskararen arnaguneetara)...
- Handitu euskaldunen teknologia berrietako alfabetizazio maila eta eskaini euskaraz Internet mundurako lehen pausoa (euskarazko programa, aplikazio eta webguneak erabiliz).
- Sortu adituez osatutako Euskararen Batzorde Teknologikoa, Interneten, informazio eta komunikazio teknologietan eta hizkuntza teknologietan hartu beharreko neurriak zein diren erabakiko dituen.
- Eman diru-laguntzak Interneten euskarazko edukiak sortzen dituztenei, izan [Wikipedia](#) osatzen ari direnei edo izan gutxieneko interes publikoko bestelako edukiak sortzen dituzten elkarte, enpresa zein norbanakoei.

Euskara ingurune globalizatuan

- Malguagotu diru-laguntzen sistemak. Internet egunetik egunera asko aldatzen da eta diru-laguntzen programek ezaugarri hori kontuan hartu behar dute.
- Lagundu diruz webguneen ostatatzea. Eskaini doako domeinuak. Ezabatu euskarazko edukiak sortzeko Internet erabiltzaileek izan ditzaketen muga ekonomiko eta tekniko guztiak.
- Bermatu erakunde publikoen webguneetako eduki guztien euskarazko bertsio eguneratua eta euskararekiko diskriminazio positiboa aplikatu. Sustatu erakunde pribatuen artean ere webguneek hizkuntza eskubideak bermatzeko beharra.
- Sustatu indar handiagoz Internet bidezko euskarazko webgune elebakarrak.
- Egin inbertsio handiagoak hizkuntza teknologietan: itzulpen automatikorako, ahotsaren tratamendurako, karaktereen ezagutza optikorako ([OCR](#)), karaktereen ezagutza intelighenterako ([ICR](#)) eta euskararen ezaugarri berezien tratamendurako.
- Handitu euskarazko telebisten interaktibitatea Internetek ematen dituen aukerak probestuz.
- Handitu hezkuntza sisteman Internetek duen pisua eta hartu euskara erabilera-hizkuntzatzat. Hartu neurriak ikasle/ordenagailu ratioa 1 izan dadin.
- Behartu diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten paperezko egunkari eta aldizkariak bertsio digital interaktiboak edukitzera.

4.1.2 Euskalgintzako gobernuz kanpoko erakundeentzako proposamenak

- Sortu Internet bidezko sareak, trinkotu hizkuntza komunitatea sarearen bidez. Kafe antzokietan dirutza inbertitu baino, Interneteko bilguneak ([Goiena.net](#), [Doberaren blog komunitatea...](#)) sortu edo konbinazioa ([Espaloia](#)).
- Sustatu mota guztietako Interneteko edukien sorkuntza (bloga, tresna interesgarria). Sustatu jendartearen euskarazko [Wikipedia](#) osatzeko lanetan parte hartzea.

Euskara ingurune globalizatuan

- Tokiko euskalgintza erakundeak: sustatu herriko beste eragileen artean (merkataritza, enpresak, herri mugimenduko elkarteak...) ere euskarazko Interneten erabilera; adibidez, komertzioentzako [blog plataformak](#) eskainiz...
- Tokiko euskalgintzako erakundeak: egin Internet bidezko tokiko komunikaziorako jauzi sendoa, 90. hamarkadan tokiko aldizkarietara egindakoaren parekoa (hainbat eredu: [Goiena.net](#), [Uztarrria.com](#), [Dobera](#), [Eibar...](#)).
- Egin [Firefox](#) nabigatzailearen euskarazko bertsioaren erabilera gizarteratzeko kanpaina erraldoia.

4.1.3 Informatikari eta internauta euskaltzaleentzako proposamenak

- Gizarteratu Interneteko euskarazko mundua komunikabide tradizionalen bidez, bai euskarazkoen eta bai erdarazkoen bidez.
- Sustatu denetariko euskarazko edukiaren sorkuntza eta sortu euskarazko edukira iristeko tresnak, edukia sortzekoak, edukia trinkotzekoak.
- Egin komunitatea bistaratzeko jarduerak eta tresnak; [Informatikari Euskaldunen Bilkurak](#), [EH 2.0](#), [Euskaltube](#), [blogari.net](#), [blogak.com](#), [sustatu.com...](#)
- Saiatu tresnak sortzerakoan esfortzuak optimizatzen eta ez lana bikoizten (blogari.net vs. blogak.com vs. mundua.com) eta beroaldien gainetik lehentasunak jartzen (orain nano-formatuak datoz, orain [Txioika...](#)). Gutxi zarete eta lan handia dago.
- Tresnak sortzerakoan, lehentasunak jartzerakoan, eskaini arreta berezia "Messenger generazioari" (gazteen %88 da Interneten erabiltzaile).
- Sortu eta bultzatu Interneten murgiltzeko lehenengo pausoak ematen lagunduko duten euskarazko tresna eta ekimen gehiago ([Tailerrak 2.0](#)).

Euskara ingurune globalizatuan

4.1.4 Internet erabiltzaile euskaldunontzako proposamenak

- Ez izan soilik ikusle, kontatu zure bizitza, konpartitu afizio eta bizioak, apunteak... finean, islatu euskaldunon bizimodua, kultura, hizkuntza... Interneten.
- Bilatu euskaraz, erabili euskarazko orrietarako link-ak, erabili euskarazko bilguneak [nodoak] (Zabaldu.com, bildu.com, sustatu.com, aurki.com, txioka.net...)
- Sortu harreman sareak (Facebook, MySpace...)
- Erabili software librea, euskararekiko abegikorragoa da. Erabili Firefox: euskaraz dago, Euskalbar dauka...
- Ez erabili Copyright-ik, ez edukien banaketa libre edo biderkatzailea eragozten duen lizentziarik.
- Edukiak Interneteratzerakoan eman lehentasuna eduki eta modu berritzaileei.

4.2 Enpresa mundua

4.2.1 Administrazio publikoentzako proposamenak

- Arautu Euskal Herrian saltzen diren produktu eta zerbitzuetan euskarak izan behar duen presentzia minimoa kontsumitzaileen legeen eta bestelako legeen bidez eta betearazi legeok enpresei.
- Sustatu euskararen erabileraren aldeko konpromisoa enpresa munduko eragileekin (enpresarien elkarteak, sindikatuak, kooperatiben elkarteak...) eta jarraipena egin konpromisoei zein hitzarmenei.
- Inplikatu garapen agentzia eta erakundeak (SPRI, mankomunitateak, merkataritza ganberak, Anain, Euskalit...) enpresa munduan euskara sustatzeko lanean; diru-laguntzagai guztietan euskararen aldagaia sartuz, sustapen kanpainak eginez, erakundeak berak euskararen erabilerari dagokionez eredugarri izanez...

Euskara ingurune globalizatuan

- Erakarri euskarara enpresa munduan lider diren enpresak eta enpresariak eta erabili eragile horien lidergoa komunikazio kanpaina zabal eta iraunkorrak egiteko.
- Tokiko erakundeak: erabili alkatearen eta zinegotzien figura herrian kokatutako multinazionaleri euskararen aldeko konpromisoak helarazteko.
- Tokiko erakundeak: enpresak euskara gehiago erabil dezan arautuko duten udal ordenantzak sortu.

4.2.2 Enpresarientzako proposamenak

Enpresan euskara gehiago erabil dezaten eta langile eta bezeroen hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten enpresariei egingo diegan eskabidea Martí eta besteren (2005) testu honekin jantziko dut:

*Hizkuntza guztiak erlazioa daitezke ekonomi, gizarte eta kultur garapeneko prozesuekin. Giza espeziearen historian zehar, ez da egon ekonomi aurrerapenaren monopolioa eduki duen hizkuntzarik. Hizkuntza asko bihurtu dira oparotasunaren faktore eta ikur. Gaur egun, hizkuntza sorta bat erabiltzen da komunikazio zientifiko unibertsalerako eta ekonomi jardura globalerako. Baina orain, badakigu ekonomi garapena prozesu konplexua dela, eta eskala globalean erabakigarriak ez diruditen faktoreek ere esku hartzen dutela: jendearen gaitasunak, gizarte kohesioak, parte hartzeko prozedurek, balio moralek, abertzaletasunak, hezkuntzak eta kulturak... giza garapenak ekonomian oinarritutako garapen eredutik ingurune bakoitzera egokituriko garapen iraunkorretara iragaitea dakar. Hizkuntzek egokitzapen hori ahalbidetzen duten epistemologia eta balioak ematen dituzte... Etorkizunari begira, **hizkuntzak balio erantsizat jo** behar dira, baita garapenaren ikuspegitik ere... Egun, **turismo** merkatuak originaltasunagatik eta diferentziagatik hautatzen ditu paisaiak eta kultur ondare fisikoak, eta, beraz, ez dirudi utopikoa pentsatzea etorkizunean hizkuntz bizipen bereziak ere balioetsiko dituela. Litekeena da hizkuntza propioak dituzten komunitateetarako bisitariak hizkuntzaren hastapenei buruzko irakaskuntza jaso nahi izatea, kultur unibertso sekretu eta ezezagunez gozatu ahal izateko. Bestalde, hizkuntz komunitateek beren hizkuntz ondare materiagabearen **balio ekonomikoa** ezagutuko dute. Kultur turismoak hainbat motatako hizkuntz ikaskuntzak barne hartuko ditu.*

Euskara ingurune globalizatuan

4.2.3 Sindikatu eta langileentzako proposamenak

- Sartu euskararen erabilera aldarrikapena hitzarmen kolektibo eta enpresako hitzarmenen negoziaketetan.
- Erabili euskara sindikatuen zereginean, zentraletik ordezkarienganako komunikazioetan eta ordezkariengandik langileenganakoetan.
- Atzerriko sindikatuekiko harremanetan sustatu hizkuntz aniztasunaren balioak.

4.2.4 Bestelako eragileentzako proposamenak

- Lanbide Heziketako zentroak eta unibertsitateak: eskatu enpresei ikasleen praktikak eta proiektuak euskaraz egiteko aukera.
- Lanbide Heziketako zentroak eta unibertsitateak: ikasleak enpresetara bidaltzerakoan hartu aintzat ikasleen euskararen ezagutza eta enpresetan euskarak duen presentzia.
- Komunikabideak: islatu medioetan eta ez ezkutatu euskarak merkatuan duen balioa.
- Euskaingintzako tokiko erakundeak: sustatu elkarteko bazkideen artean eta tokiko komunikabideen bidez lan munduan ere euskara erabiltzeak euskararen berreskurapen prozesuan duen garrantzia.

Euskara ingurune globalizatuan

ERANSKINAK

1. eranskina: euskara planak dituzten enpresen zerrenda (HPSko diru-laguntzen onuradunak).

141 enpresa-elkarte:

<i>Aduriz de Lasarte, S.A.</i>	<i>Aiala Vidrio, S.A. Unipersonal</i>	<i>Alecop, S. Coop. Ltda.</i>
<i>Alejandro Altuna, S.A.</i>	<i>Arcelor Bergara, S.A.</i>	<i>Arlan, S.A.</i>
<i>Asea Brown Boveri, S.A.</i>	<i>Asmobi, S.L.</i>	<i>Asociación Cultural Unesco Etxea</i>
<i>Asociación Gaztaroa Elkartea</i>	<i>Asociación Goiztiri Elkartea</i>	<i>Asociación Ilarki Asoc. Asistencia Domiciliaria</i>
<i>Asociación Inserción Social Zabaltzen Elkartea</i>	<i>Asociación Reinserción Social Erroak Elkartea</i>	<i>Asociación Vasca Agencias Desarrollo Garapen</i>
<i>Auzo Lagun, S. Coop.</i>	<i>Avenida Digital Interactiva, S.A.</i>	<i>Berriola, S. Coop.</i>
<i>Bilbomática, S.A.</i>	<i>Busturialdeko Irrati Telebista, S.L.</i>	<i>Cega Multidistribución, S.A.</i>
<i>Celaya Emparanza y Galdos Internacional, S.A.</i>	<i>Celaya Emparanza y Galdos, S.A.</i>	<i>Centros Comerciales Carrefour, S.A.</i>
<i>Cikautxo, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Clínica Dental Aldaz, S.L.</i>	<i>Colegio Of. Ingenieros Industriales-Gip.</i>
<i>Colegio Oficial Ingenieros Industriales</i>	<i>Colegio Vasco de Economistas-Bizkaia</i>	<i>Comisiones Obreras de Euskadi-Bizkaia</i>
<i>Construcción Mecánicas Jose Lazpiur, S.A.</i>	<i>Construcción Otegui Gaztañaga, S.L.</i>	<i>Construcciones Auxiliar Ferrocarriles, S.A.</i>
<i>Cooperativa Industrial Batz, S.C.I.</i>	<i>Copreci, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Danobat, S. Coop. Ltda.</i>
<i>Edesa, S. Coop.</i>	<i>Edipro Ediciones Profesionales, S.L.</i>	<i>Eika, S. Coop.</i>
<i>Ekin, S.C.I.</i>	<i>Ela-Stv Eusko Langileen Alkartasuna-Bi</i>	<i>Elay Industrial, S.A.</i>
<i>Elay, S.L.</i>	<i>Electra Vitoria, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Elkargi, S.G.R. (Gipuzkoa)</i>
<i>Emaus Fundación Social</i>	<i>Enbor Consultores, S.L.</i>	<i>Energía Portátil, S.A.</i>
<i>Erne, S.C.L.</i>	<i>Eroski, S. Coop. Ltda. (Elorrio)</i>	<i>Escuela Politécnica J.M. Arizmendiarreta</i>
<i>Eteo, S.C.L.</i>	<i>Fagor Arrasate, S.C.L.</i>	<i>Fagor Automation, S.C.L.</i>
<i>Fagor Ederlan, S.C.L.</i>	<i>Fagor Electrodomésticos, S.C.L.</i>	<i>Fagor Electrónica, S.C.L.</i>
<i>Fagor Industrial, S. Coop.</i>	<i>Fagor S. Coop. de 2 Grado</i>	<i>Federación Cooperativas Agrarias Euskadi</i>
<i>Federación Mercantil de Guipúzcoa</i>	<i>Fit Automoción, S.A.</i>	<i>Fundación Azti-Azti Fundazioa</i>
<i>Fundación Canónica Autónoma Ede</i>	<i>Fundación Form. Técnica en Maq. Herramienta (IMH)</i>	<i>Fundación Gaiker</i>
<i>Fundación Inst. Gerontolog. Matia Ingema</i>	<i>Fundación Kalitatea Fundazioa</i>	<i>Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa</i>
<i>Fundación Tekniker Fundazioa</i>	<i>Gabinete Sociológico Biker, S.L.L.</i>	<i>Gaiki, S.L.</i>
<i>Gardabera, S.L.L.</i>	<i>Gernika Garbiketak, S.L.</i>	<i>Gerontológico de Renteria, S.L.</i>
<i>Geysler Gastech, S.A.</i>	<i>Gkn Driveline Lazpiur, S.L.</i>	<i>Gkn Driveline Legazpi, S.A.</i>
<i>Gkn Driveline Zumaia, S.A.</i>	<i>Goizper, S.C.L.</i>	<i>Grupo Danobat, S. Coop.</i>
<i>Grupo ULMA Taldea, S. Coop.</i>	<i>Hator, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Hotel (Heziketa Teknikoko Elkartea)</i>
<i>Hijos de Jose Serrats, S.A.</i>	<i>Huhezi, S. Coop.</i>	<i>Ibai, S. Coop.</i>
<i>Ideko, S. Coop.</i>	<i>Ikerlan, S.C.L.</i>	<i>Industria de Turbo Propulsores, S.A.</i>
<i>Industrias Tajo, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Inforlur, S.L.</i>	<i>Instituto para el Tratamiento de la Nicotina-Dependencia, S.L.</i>
<i>Jez Sistemas Ferroviarios, S.L.</i>	<i>Koniker, S. Coop.</i>	<i>Kristau Eskola</i>
<i>LAB-Federación Asoc. Obreras Sind.</i>	<i>Lagunaro Mondragón Servicios, S. Coop.</i>	<i>Lana, S. Coop.</i>
<i>Latz, S. Coop. Ltda.</i>	<i>Lealde, S. Coop.</i>	<i>Leioa Berri Auto, S.L.</i>
<i>Lks Ingeniería, S. Coop.</i>	<i>Lks, S.C.L.</i>	<i>Maier, S. Coop. Ltda.</i>
<i>Maquinaria Elkor, S.A.L.</i>	<i>Matz-Erreka, S.C.L.</i>	<i>Mcc Mondragón Cooperación Coop. S. Coop. L.</i>
<i>Mirvat, S. Coop.</i>	<i>Mondragon Assembly</i>	<i>Mondragon Sistemas de Información, S. Coop.</i>
<i>Moragues Acebes y Scade, S.A.</i>	<i>Moragues And Scade, S.L.</i>	<i>Mugape, S.A.</i>
<i>Ona-Pres, S.C.L.</i>	<i>Orkli, S.C.L.</i>	<i>Orona, S.C.L.</i>
<i>Perfiles Especiales Selak, S.L.</i>	<i>Plastinka, S.A.</i>	<i>Real Sociedad Bascongada Amigos País-Bi</i>
<i>Recyde, S.A.</i>	<i>Residencia Orue, S.L.</i>	<i>S Izagirre, S.A.</i>
<i>S.A. Talleres Manipulación de Papel</i>	<i>San Jose Lopez, S.A.</i>	<i>Sociedad Coop. Larrialdia</i>
<i>Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.</i>	<i>Sociedad Hispánica de Desarrollo, S.A.</i>	<i>Soraluce, S. Coop.</i>
<i>Suspergintza Elkartea</i>	<i>Talleres Arreche, S.A.</i>	<i>Tasfor Training Group, S.L.</i>
<i>Trabajos Especiales Zut, S.A.</i>	<i>Tximela, S.A.</i>	<i>Ulma C Y E, S. Coop.</i>
<i>Ulma Forja, S. Coop.</i>	<i>Ulma Hormigón Polímero, S. Coop.</i>	<i>Ulma Manutención, S. Coop.</i>
<i>Urkotronik, S.A.</i>	<i>Valeriano Urrutikoetxea, S.A.</i>	<i>Victorio Luzuriaga - Usurbil, S.A.</i>

Euskara ingurune globalizatuan

2. eranskina: enpresa globalizatueterako inkesta

ENPRESA GLOBALIZATUETARAKO INKESTA

Enpresa: ... Inkestari nork erantzun: ... Enpresan duen kargua: ...
--

Mesedez, erantzun inkesta honetako galderei (jarritz, azpimarratuz edo nolabait nabarmenduz):

- **Zure enpresak munduko zein herrialdetan ditu lan zentroak (produkzio plantak, bulegoak...)?**

- Euskal Herrian	- ...	- ...	- ...
- ...	- ...	- ...	- ...
- ...	- ...	- ...	- ...

- **Enpresako langile guztien artean zenbat langile daude atzerrian (EHTik kanpo)?** Salerosten, koordinatzen, zuzendaritzan, ingeniartzan, tailerrean (MOD)...

<input type="checkbox"/> %0-5	<input type="checkbox"/> %6-10	<input type="checkbox"/> %11-25	<input type="checkbox"/> %26-50	<input type="checkbox"/> %51-75	<input type="checkbox"/> %76-100
-------------------------------	--------------------------------	---------------------------------	---------------------------------	---------------------------------	----------------------------------

- **Euskal Herriko plant(et)ako zenbat langilek du zuzeneko harremana atzerriko langileekin?**

<input type="checkbox"/> %0-5	<input type="checkbox"/> %6-10	<input type="checkbox"/> %11-25	<input type="checkbox"/> %26-50	<input type="checkbox"/> %51-75	<input type="checkbox"/> %76-100
-------------------------------	--------------------------------	---------------------------------	---------------------------------	---------------------------------	----------------------------------

- **Geografikoki non dago zure enpresaren kapitalaren gehiengoa?**

<input type="checkbox"/> Euskal Herrian	<input type="checkbox"/> atzerrian: ...
---	---

- **Zeintzuk dira enpresako hizkuntza ofizialak? (Estatutu edo arauetan jasotakoak)**

<input type="checkbox"/> euskara	<input type="checkbox"/> espainiera	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...
<input type="checkbox"/> ingelesa	<input type="checkbox"/> frantsesa	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ez dago

- **Badago interlingua (atzerrikoekiko hizkuntza komun) ofizialik? Zein da?**

<input type="checkbox"/> euskara	<input type="checkbox"/> espainiera	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...
<input type="checkbox"/> ingelesa	<input type="checkbox"/> frantsesa	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> ez dago

- **Enpresa globalizatua izateak eraginik izan al du euskarako planean?**

-plana martxan jartzeko...	<input type="checkbox"/> arazoak	<input type="checkbox"/> erraztasunak	<input type="checkbox"/> antzera
-plana diruz finantzatzeko...	<input type="checkbox"/> arazoak	<input type="checkbox"/> erraztasunak	<input type="checkbox"/> antzera
-Zuzendaritza inplikatzeko...	<input type="checkbox"/> arazoak	<input type="checkbox"/> erraztasunak	<input type="checkbox"/> antzera
-atzerriko langile eta zuzendarien euskara planarekiko jarrera...	<input type="checkbox"/> kontrakoa	<input type="checkbox"/> aldekoa	<input type="checkbox"/> aseptikoa
-EHko kontratazio eta promozio politikan euskara kontuan hartzen da...	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> antzera
-eleaniztasun handiagoa kudeatzeko beharrarekin, euskara planaren pisua..	<input type="checkbox"/> txikiagoa	<input type="checkbox"/> handiagoa	<input type="checkbox"/> antzerakoa
-euskara planeko egitura (Euskara Batzordea, teknikaria, eskolak)...	<input type="checkbox"/> ahuldu	<input type="checkbox"/> indartu	<input type="checkbox"/> berdin segi

Euskara ingurune globalizatuan

- **Enpresa globalizatua izateak eraginik izan al du (Euskal Herriko) enpres(et)ako euskararen erabileran?**

-ahoz euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-publizitatean euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-webgunean euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-intranetean euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-softwarean euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-errotulazioan euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-dokumentuetan euskara...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)
-zuzendaritzaren oharretan...	<input type="checkbox"/> gehiago	<input type="checkbox"/> gutxiago	<input type="checkbox"/> berdin(>0)	<input type="checkbox"/> berdin(=0)

- **Zein da zure pertzepzioa kontu hauen inguruan?**

-gure enpresa globalizatuak hizkuntza lokalak errespetatzen ditu:			
<input type="checkbox"/> denak edo ia-denak	<input type="checkbox"/> soilik euskara	<input type="checkbox"/> batzuk bai, euskara ez	<input type="checkbox"/> ez
-enpresa globalizatua izateak hau indartu du:			
<input type="checkbox"/> hizkuntza-aniztasuna	<input type="checkbox"/> elebakartasuna	<input type="checkbox"/> ez dakit	
-enpresa globalizatua izateak langile elebakarren hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera...			
<input type="checkbox"/> hobetu egin du	<input type="checkbox"/> okertu egin du	<input type="checkbox"/> ez dakit	
-enpresa globalizatua izateak Zuzendaritzaren hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera...			
<input type="checkbox"/> hobetu egin du	<input type="checkbox"/> okertu egin du	<input type="checkbox"/> ez dakit	
-enpresa globalizatua izatearekin (Euskal Herriko) enpresako langile gehiago hasi da...			
<input type="checkbox"/> hizkuntza globala (ingelesa) ikasten	<input type="checkbox"/> atzerriko beste hizk. lokalak ikasten		
-enpresa globalizatua izatearekin atzerriko langileak hizkuntza hauek hasi dira ikasten:			
<input type="checkbox"/> ingelesa	<input type="checkbox"/> gaztelania	<input type="checkbox"/> euskara	<input type="checkbox"/> beste bat: ...

- **Idatzi hemen globalizazioa eta euskararen inguruan burura datozkizun gogoetak, datuak edo eta anekdotak.**

...

MILA ESKER

Erantzuna, hona: denis@emun.com

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Inazio (2007): BERRIA egunkaria, "Gonbidapena, idealismo huts" iritzi artikulua, http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2007-06-15&orria=005&kont=007, 2007-06-15.
- AGIRRE, Katixa (2007). Elkarrizketa. Gaztelumendi.org bloga, <http://www.larrabetzu.org/gaztelumendi/?p=236>, 2007-09-25.
- ALARCÓN ALARCÓN, Amado (2004). Economía, Política e Idiomas. Intercambio lingüístico y sus efectos sobre la eficiencia y la distribución de los recursos. 1. edizioa. Madrid: Consejo Económico y Social (CES). Orri kopurua: 324. ISBN: 84-8188-215-1.
- AMEZAGA, Josu (2005). Administrazioan Euskaraz aldizkaria, 21. zenbakia. 2005-03-10. HAAE-IVAP, Eusko Jaurlaritzia.
- ARANZABAL, Joxe (2007). Faraoa bloga, <http://www.goiena.net/blogak/faraoa/zenbat-blog-daude-euskaraz#comment9>, 2007-06-28.
- ARGIA.COM WEBGUNEA, <http://www.argia.com>.
- AZURMENDI, Maria-Jose eta MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (2006). The case of basque: past, present and future. Soziolinguistika Klusterra. Orri kopurua: 158. ISBN 10: 84-609-9703-0. ISBN-13: 978-84-609-9703-0.
- BARQUÍN, Amelia (2004). Etorkinak, euskara eta "ilarako azkenaren" sindromea. BERRIA egunkaria, 2004-11-17.
- BARREÑA, Andoni eta JUARISTI, Patxi (2005). Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 1. ikasgaia, 2005-2006 ikasturtea.
- BOTELLA, Joan (2002). Una mirada des de l'àmbit de la comunicació audiovisual. In: Llengües globals, llengües locals. 1. edizioa. Alzira: Edicions Bromera. Orri kopurua: 183. ISBN: 84-7660-664-8.

Euskara ingurune globalizatuan

- BOURHIS, Richard Y. (2001). Reversing Language Shift in Québec. In: Can threatened languages be saved?. 1. edizioa. Clevedon: Multilingual Matters Ltd. Orri kopurua: 503. ISBN: 1-85359-493-8 (hbk) ISBN: 1-85359-492-X (pbk).
- BPD, Bundeszentrale für politische Bildung, <http://www.bpd.de>.
- CHOMSKY, Noam (2006). Bere CHOMSKY.INFO webgune ofiziala, 2006ko elkarrizketen atala. Globalization. Noam Chomsky interviewed by Maria Ahmed. <http://www.chomsky.info/interviews/2006----.htm>
- COMELLAS, Pere (2006). Contra l'imperialisme lingüístic. A favor de la linguodiversitat. 1. edizioa. Barcelona: Edicions La Campana. Orri kopurua: 186. ISBN: 84-95616-79-3
- CRYSTAL, David (2004). The Language Revolution. 1. edizioa. Cambridge: Polity Press Ltd. Orri kopurua: 142. ISBN: 0-7456-3312-9. ISBN: 0-7456-3313-7 (pb).
- DOUGLAS, William A. (2007). Administrazioa Euskaraz aldizkaria, 57. zenbakia, 2007ko uztailekoa.
- ENPRESA DIGITALA webgunea (2007). Albisteak, 2007/08/28 eta 2007/09/03. <http://www.enpresadigitala.net/euskera>
- ERABILI.COM webgunea. <http://www.erabili.com>.
- ESNAOLA, Iratxe (2007). Bideoa. [Zibereskola bloga](http://zibereskola.blogspot.com/2007/05/retos-del-euskera-en-internet.html), <http://zibereskola.blogspot.com/2007/05/retos-del-euskera-en-internet.html>, 2007-05-14.
- EUSKALJAKINTZA.COM webgunea, <http://www.euskaljakintza.com>.
- EUSKARA GIPUZKOAN webgunea, Gipuzkoako Foru Aldundia, <http://www.gipuzkoeuskara.net>
- Euskararen Datu Basea (EDB), <http://www.soziolinguistika.org/edb>.
- EUSTAT, Euskal Estatistika Institutua, <http://www.eustat.es>.

Euskara ingurune globalizatuan

- FARWELL, David (2007). BERRIA egunkarian, 2007-06-15, http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=harian&data=2007-06-15&orria=016&kont=404. Enpresadigitala.net webgunean, http://www.enpresadigitala.net/euskera/biblioteca/biblioteca_informacion.jsp?id=1030.
- FERNÁNDEZ, Luistxo (2006). Internet eta euskara. [Uztarria.com](http://www.uztarria.com), hitzaldiaren [bideoa](http://www.uztarria.com).
- FERNÁNDEZ OSTOLAZA, Iñigo (2007). Euskara eta Publizitatea bloga, <http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/archives/111-Nire-etxea,-nire-erreinua.html> posta, 2007-07-20.
- FERNÁNDEZ HERMANA, Luis Ángel (2002). Les llengües a la xarxa. In: Llengües globals, llengües locals. 1. edizioa. Alzira: Edicions Bromera. Orri kopurua: 183. ISBN: 84-7660-664-8.
- FISHMAN, Joshua A. (2001). Can threatened languages be saved?. 1. edizioa. Clevedon: Multilingual Matters Ltd. Orri kopurua: 503. ISBN: 1-85359-493-8 (hbk) ISBN: 1-85359-492-X (pbk).
- FISHMAN, Joshua A. (2005). Zer galtzen dugu gure hizkuntza galtzean? In: Hizkuntzen mundua: munduko hizkuntzei buruzko txostena. UNESCO ETXEA. Orri kopurua: 455. ISBN: 84-8373-817-1.
- GARATE, Gotzon (2006). Azken ezpata euskararentzat. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1158325415. 2006-09-18.
- GRIN, François (2005). L'enseignement des langues étrangères comme politique publique. Haut Conseil de l'évaluation de l'école. http://cisad.adc.education.fr/hcee/documents/rapport_Grin.pdf. Orri kopurua: 127.
- HARRIS, Richard G. (2004). NOUVELLES PERSPECTIVES CANADIENNES. LANGUE ET BILINGUISME: LES APPROCHES ÉCONOMIQUES. Patrimoine canadien webgunea. http://www.patrimoinecanadien.gc.ca/progs/lo-ol/perspectives/francais/economic/ch2_02.html

Euskara ingurune globalizatuan

- HICKS, Davith (2007). Euskara Gipuzkoan webgunea, albisteen atala, <http://www.gipuzkoeuskara.net/albistek/1182149602>, 2007-06-18.
- INFONOMIA.COM webgunea, <Http://www.infonomia.com>.
- LERTXUNDI, Anjel (2005). Hitz Beste bloga, http://www.berria.info/blogak/lertxundi/index.php?blog=14&title=blog_blog_1&more=1&c=1&tb=1&pb=1, 2005-11-23.
- MARTÍ, Felix, ORTEGA, Paul, IDIAZABAL, Itziar, BARREÑA, Andoni, JUARISTI, Patxi, JUNYENT, Carme, URANGA, Belen eta AMORRORTU, Estibaliz (2005). Hizkuntzen mundua: munduko hizkuntzei buruzko txostena. UNESCO ETXEA. Orri kopurua: 455. ISBN: 84-8373-817-1.
- MOLLÁ, Toni (2002). Llengües globals, llengües locals. 1. edizioa. Alzira: Edicions Bromera. Orri kopurua: 183. ISBN: 84-7660-664-8.
- ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2007). Iزارonews.com webgunea, <http://www.izaronews.com/NOTICIAS%206/DOCE%20FEBRERO/joxemanuel%20odrionzola.htm>, 2007-02-12.
- PUEYO, Miquel eta TURULL, Albert (2003). Diversitat i política lingüística en un món global. 1. edizioa. Barcelona: Editorial UOC eta Editorial Pòrtic. Orri kopurua: 192. ISBN: 84-7306-865-3. ISBN: 84-8318-296-3.
- RUIZ, Carlos (2007). BERRIA egunkaria, http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2007-06-09&orria=004&kont=009, 2007-06-09.
- SAGARNA, Andoni (2007). GAUR8.info webgunea, <http://www.gaur8.info/edukiak/20070324/9724>, 2007-03-24. Argia astekaria, 2098. alea, <http://www.argia.com/argia-astekaria/2098/beste-hizkuntzetarakan-eginez-etorriko-zaigu-dirua-geurean-aritzeko>.
- SAMPEDRO, José Luis (2002). Merkatua eta globalizazioa. Euskarazko edizioa. Elhuyar Fundazioa (2005). Orri kopurua: 91. ISBN: 84-95338-59-9

Euskara ingurune globalizatuan

- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María, "TXEPETX" (1999). Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara. Aplicación sociolingüística de la territorialidad. Bilbo: Bilboko Udala. Orri kopurua: 386. ISBN: 84-88714-223-8.
- SAVATER, Fernando (2005). Administrazioan Euskaraz aldizkaria, 21. zenbakia. 2005-03-10. HAEE-IVAP, Eusko Jaurlaritza.
- SEPTIÉN ORTIZ, Jesús Manuel (2006). Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban. www.ararteko.net webgunea, <http://www.ararteko.net/webs/prentsa-ohar/escuelasinfronteras-eusk.htm>, 2006-03-23.
- SIGUAN, Miquel (2002). Llengües i cultures en un món globalitzat. In: Llengües globals, llengües locals. 1. edizioa. Alzira: Edicions Bromera. Orri kopurua: 183. ISBN: 84-7660-664-8.
- SIRBENT, Ekaitz (2002). Globalizazioaren gizartea eta ordena linguistiko berria. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Sakontze Egitasmoa.
- SOLÉ, Carlota, ALARCÓN, Amado, GARZÓN, Lluís eta TERRONES, Albert (2005). Llengua, empresa i integració econòmica. L'intercanvi econòmic com a font de canvi lingüístic. 1. edizioa. Barcelona: Institut D'Estudis Catalans. Orri kopurua: 255. ISBN: 84-7283-802-1.
- SUBERBIOLA, Pablo (2002). Hizkuntza gutxiagotuak globalizazioaren aurrean. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Sakontze egitasmoa.
- SUSTATU.COM webgunea, <http://www.sustatu.com>.
- TIRAKA.NET administrazioan euskara erabiltzeko bloga, <http://www.tiraka.net>.
- TUSÓN, Jesús (2002), El valor de la diversitat en la comunicació global. In: Llengües globals, llengües locals. 1. edizioa. Alzira: Edicions Bromera. Orri kopurua: 183. ISBN: 84-7660-664-8.
- WIKIPEDIA (<http://www.wikipedia.org>), euskarazko (<http://eu.wikipedia.org/>), alemanezko (<http://de.wikipedia.org/>), ingelesezko (<http://en.wikipedia.org/>) eta frantsesezko (<http://fr.wikipedia.org/>) bertsioak.

Euskara ingurune globalizatuan

- ZAPATA SOLANO, Mario (2005). Etorkinak eta hizkuntza ereduak. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Sakontze egitasmoa.
- ZARRAGA AZUMENDI, Arkaitz (2007). BERRIA egunkaria, http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2007-03-06&orria=004&kont=009, 2007-03-06.
- ZENDOIA, Jose M. (2006). Economic development and the basque language: a sign of hope. In: The case of basque: past, present and future. Soziolinguistika Klusterra. Orri kopurua: 158. ISBN 10: 84-609-9703-0. ISBN-13: 978-84-609-9703-0.
- ZUBIAGA, Arkaitz (2007). [Mutilmedia](http://www.mutilmedia.com/?p=245) bloga, <http://www.mutilmedia.com/?p=245>, 2007-09-24.